- *Euzko Deya* izeneko agerkariak honela inprimatu ziren: Londresen (1938) lehenik; gero, Buenos Airesen (1939-1975); Méxicon (1943); Parisen (1936-1940; 1940-1945)



- *Olerti* hiruhilabetekaria Bilbon agertu zen 1959tik 1995era arte; *Karmel* aldizkariaren gehigarri poetikoa zen.

Baziren beste aldizkari batzuk EAJri zuzenago lortuak, esan badaiteke. *Alderdi* zen politika talde horren bozeramale ofiziala, eta antolakuntza jeltzaleko atal garrantzitsua bihurtu zen. Deserriko urte hauetan bestelako argitalpenak ere sortu ziren, eta batzuek ideal nazionalistak zabaltzen lagundu zuten. Méxicon *Aberri*, Chilen *Euzkadi*, Venezuelan *Euzko Gaztedi* eta abar. Irakurrienak Buenos Aireseko zein Pariseko *Euzko Deya*k izan ziren. Giro horretan garrantzitsuagoa izan zen oraindik OPEren (Oficina Prensa de Euzkadi) buletina; gobernuak atera zuen 1947tik 1977ra arte.

Buenos Airesen euskal erbesteko enpresa kulturalik garrantzitsuena sortu zen I. López Mendizabal *Gernika*ko kolaboratzailearen eskutik: *Ekin* argitaletxea. Tolosako belaunez belauneko inprimatzaile-familia bateko semea zen, eta EAJko karguduna izandakoa, legegizona. Bere sorlekuan altxatuek liburutegia erre bazioten ere, *Ekin* argitaletxeak liburu-mordoa argitaratu zuen euskal kulturaz eta politikaz.

Gaineratu behar dira 1942tik aurrera *Radio Euzkadi*-k egiten zituen emanaldiak.

*El Péndulo patriótico. Historia del PNV* izeneko liburuan *Gernika* ez dute EAJko zabalkunde-organoen artean sartzen[23].

Zehaztu dezagun gehiago euskal kulturaren garai hau. Diktadurak iraun zuen 40 urteen erdibidean, 1956ko urte giltzarria dago, eta arrazoi asko eman ohi dira data hori seinalatzeko. Aldizkaria eten horren aurrekoa da. Nolako etena izan zen azaldu dezagun.

J. M. Torrealdairen[24] arabera, hauek dira urte hori mugarritzat hartzeko arrazoi batzuk:

1954: Orixe itzuli egiten da erbestetik. *Egan* osoki euskaraz argitaratzen hasten da.

1956: *Jakin* aldizkaria jaiotzen da.

1954: *Zeruko Argia* aldizkariak garai berria hasten du.

1953: *Anaitasuna* aldizkaria jaiotzen da.

1955: liburuen ekoizpena bikoiztu egiten da: urteko 10etik 20ra.

1954: Eusko Ikaskuntzaren kongresua Baionan.

1956: *Euskera* aldizkaria berragertzen da.

1956: *Karmel* aldizkaria agertzen da.

1956: *Euzko-Gogoa* aldizkaria Biarritzera heltzen da.

1956: Euskaltzaindiaren lehen biltzarra.

K. Mitxelenaren[25] esanetan, 1956an euskal kulturaren historiako sasoi esanguratsu eta sortzaileenetakoa hasten da. Une honetan hasten da belaunaldi-aldaketa, nahiz eta belaunaldi arteko haustura eta gatazka 60etatik aurrera sortzen den. Hala ere, aldaketa honen zenbait joera 50eko hamarkadatik nabarmen daitezke, adibidez hizkuntza-motaz egon den eztabaidan.

1956ko urtetik aurrera kanpoko berrikuntzekiko iragazkortasun handiagoa dago, J. Miranderengan zein Txillardegirengan zein G. Arestirengan nabaritu daitekeen bezala. Literaturaren atalean, ordea, ikusiko dugu J. Mirande euskal letren plazan *Gernika*n agertu zela lehenengoz, eta lehen idazkietatik hasita eraginera irekita egon zela.

Bolada honetako kanpoko zenbait gertakari nagusi dira Vatikanoko II. kontzilioa (1962-65), deskolonizazioa eta desestalinizazioa.

Kontuan izan dezagun 1954an *Egan* aldizkariko zuzendaritza berriak atera zuen "Asmo berri" lehen editoriala; bi puntu nabarmentzen zituen: kalera begira jardun nahia eta edonongo euskara baliagarritzat edukitzea.

Edonola ere badira deritzotenak *Gernika* bizi izan zen epea bukatzeko urtea 1964 dela.

Denboran atzera egin eta lehen frankismora bueltatuta, erbesteratuak kanpoan zeuden (F. Krutwig, Orixe, A. M. Labaien, Basarri, I. López Mendizabal…); batzuk etxera itzuli gabe hilko ziren (A. Ibinagabeitia...). Eliza Trento ostekoa zen eta nazional-katolikoa: gizarteko funtzionamendua baldintzapetzen zuen. Euskal liburu produkzioa minimoa zen. Ia ez zegoen euskarazko prentsarik. Euskaltzaindia lo zorrotik atera beharrean zegoen. Komunismo estalinista totalitarioa zen...



## Aurreko azterketak

Ikerketa mota bi gogoan hartuko ditugu. Lehenik, aldizkarigintzaz gurean eta kanpoan egin diren lanak, eta, ondoren, 40ko eta 50eko hamarkadetako literaturaz egin diren besteak.

J. Intxaustik *Euzko-Gogoa* (1950-59) aztertu zuen[26]. Puntu hauek bederen agertzen dira *Jakin*en egin zuen berri-ematean:

- zuzendariaren soslaia: prestakuntza eta lagun euskaltzaleak
- garai hartako idazlanak eta liburuak
- lankideak: Orixe eta A. Ibinagabeitia
- aldizkariaren aroak
- idazleen adina
- *Euzko-Gogoa*k zer izan nahi zuen
- izan ziren eztabaidak
- argitalpen-datuak urtez urte
- erabilitako gaiak orrialde kopuruen arabera
- olerkaririk emankorren zerrenda
- aldizkariaren zabalkundea
- idazleen ezizenak

Lanaren justifikatzeko, esaten zuen aurreko garaietan izan ziren arazo funtsezkoenak bazirautela azterketa egin zuen garaian ere. J. Intxaustik zehaztu zituen puntu bertsuak zertuko ditugu geuk ere.

Beste batean, *Jakin*ek bere aldizkari gisako balantzea egin zuen. 1981ean aurreko 25 urteen panoramika eman zuten erredakziokoek. Aurkibide hau erabili zuten:

> "Aurkibidea: A. Kultura eta hizkuntza gerraostean: A.1. Jakinen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara. A.2. 1956: urte mugarri bat. A.3. Eliz-ikastetxeetako aldizkariak. B. Urtez urte: Historia. B.1. 1956-61.: kultur euskararen bila. B .2. 1964-69: kultur euskararen bila. B.3. 1970-76: normalizazio bidean. B.4. 1977-81: kultur aldizkaria. C. Jakin orriz orri: Gaiak. C.1. Bilakaera ideologikoa. C.2. Kulturgintzaren planteamenduak. C.3. Filosofia eta Teologia. C.4. Artea eta Literatura. C.5. Zientziak. C.6. Euskararen arazoak. D. Jakinen bizitza: D.1. Jakinen zuzendariak. D.2. 294 idazle. D.3. 2300 harpidedun. D.4. Prentsalegearekin borrokan. D.5. Pro-manuskriptotik tipografiara. D.6. Kontuak argi eta garbi. E. Aurkibideak. E.1. Idazleen arabera. E.2. Gaien arabera."

Aurrekari hori kontuan izan dugu, baina *Gernika* aldizkariaren eta *Jakin* aldizkariaren ezaugarriak ez dira berak. *Gernika* klandestinoki zabaltzen zen Hegoaldean, eta zenbaiten ekimen pribatuari zor zion existentzia. Arantzazukoa, aldiz, ondo antolatutako legezko ordena erlijioso baten ekimena da (frantziskotarrak). Erregimenaren jazarpena jasan zuen *Jakin*ek ere, eta argitaratzeari utzi behar izan zion bolada batean. Hala ere, bere datuak, irauten duen kongregazioak gorde ditu. *Gernika*k urte batzuez iraun zuen lagunartearen fruitu izan zen, areago, I. Fagoagaren ekimen partikularrak eraman zuen zamarik handiena. Eta zuzendari honek esplizituki erreserba eskatzen zien inguruko lankideek, bigarren zuzendari J. Thalamasek zioenez. Tirada, zabalkundea eta aldizkariaren kronika osatzen duten hainbat pasarte argitu gabe diraute: hasierako istiluak, partiduarekin eta afiliatuekin izandako harremanak, itxieraren gorabehera zehatzak, tirada, banaketa-sarea eta salmenten kopuruak, datu ekonomikoak... Egia da I. Fagoagak bere gutunetan zenbait jakingarri ematen dituela; Orixeren, J. Miranderen, A. Ibinagabeitiaren eta J. Zaitegiren gutuneriek ere balio izan digute zehaztasunak aurkitzen. Bilduma horietan, bestalde, orduko hainbat protagonistaren ahotsak ditugu: F. Krutwigenak, K. Mitxelenarenak, Tx. Peillenenak...



I. Fagoagak 20 zenbaki onez argitaratu zituen. Tenore wagneriarra zen garaian bildutako sosekin hornitu zuen agerkaria, eskuarteak amaitu arte. Buenos Airesen ito zen ekonomikoki, euskal diasporak sostengua ukatu baitzion. Publikazio erromes eta boluntarista honen zenbait datu nahitaez dira zailak eskuratzeko.

Eskertzekoa da koadernoen argitalpen faksimilea eginda topatzea. *Ediciones Vascas*-ek atera zuen bilduma ia osoa (1979) hiru liburuki marduletan. 1945ean argitaratu zen lehen zenbakia falta dute; horren ale bat Bizkaiko Aldundiaren Liburutegian dago Bilbon. 1948ra arte zenbaki bakarra izango zen, hiru urteko isilunea egon zelako. Argitaraldi faksimilea txukuna da, eta autorekako aurkibidea badauka azkenean. Autore bakoitzak idatzitako artikuluak jasotzen ditu, eta aldizkariaren zenbakia eta artikuluen lehen orrialdea zehazten dira.

Orixeren artikuluen zerrenda ematen duenean, aurkibideak zenbait artikulu zerrendatzea ahaztu du; hauek dira:

- "El genio de un pueblo". *Gernika* 1945
- "La primera academia vasca". *Gernika* Dec. 1949
- "Errores de vascólogos nuestros (II)". *Gernika* 11, 1950
- "A M. Pierre Lafitte". *Gernika* 11, 1952.
- "Ciencia y práctica de nuestro idioma". *Gernika* 18, 1952.

Formatu elektronikoan daude sarean 1-25 zenbakiak *Ibinagabeitia Proiektua* izenekoan. Artikulu guztien izenburuak ageri dira. Euskarazkoak testu eta guzti sartuta daude; gaingiroki, filologiarekin eta folklorearekin lotutako gaztelaniazkoak ere bai. Ez dakigu, konparazio baterako, H. Gavelen artikulu bat zergatik ez den jasotzen osorik: euskal fonologiari buruzkoa da, eta frantsesez dago.

*Ibinagabeitia Proiektu*ko web argitalpenean datu zehatz batzuk ematen dira: egilea, gaia, hizkuntza, izenburua, generoa, orrialdeak,

sinadura... Edonola ere artikulu batzuk soilik agertzen dira osotasunean, eta norbaitek gainerako artikuluren bat irakurri nahi badu inprimatutako aleetara jo beharko du nahitaez.

P. Iztueta soziologoak askotariko lan ugaria egin du gabiltzan arloan. *Euzko-Gogoa* eta *Zabal* aldizkariak aztertu zituen. *Gernika*-ren hainbat gorabehera laburtu ditu *Orixe eta bere garaia* liburuki mardulean[27]. Nikolas Ormaetxea tartean izan zuten hamaika eztabaida biltzen ditu; *Gernika*n burututakoak interes handia dute filologoarentzat zein hizkuntzalariarentzat zein euskaltzalearentzat. Laburki eman ditzagun azkar:

- Euskaltzaindia berregituratzea: erakundea lotan zegoen gerraostean. Bilboko Erribera kaleko egoitzan R. M. Azkue edadetua bakarlanean ari zen. Euskaltzain andana erbestean zegoen. Indar berriekin hurreratu zitzaion F. Krutwig gaztea. Euskaltzaindian sartze-ekitaldian erregimena publikoki kritikatu zuen, eta ospa egiteko aholkatu zioten. Bere gain hartu zuen akademia berpiztea. Besteak beste, Orixeri proposatu zion sartzea baina honek ukatu egin zuen eskaintza temati, P. Lafitte aurka zeukalako aitzakian. Garai hartako protagonisten arteko gutuneria irakurtzea argigarria da. Orixek ez zuen gustoko F. Krutwigek apailatutako lapurtera klasikoa. Orexakoak F. Krutwig bera gerrako erasotzaileekin multzokatzen zuen, eta tirabirak izan zituzten. F. Krutwig Bilbotik atzerrira heldu berriak salatzen zuen euskal kultura goi mailara bultzatzeko ahalegin falta. Orixe mindu egin zen eta esker txarrekoa iritzi zion getxotarrari, beraren eta beraren sasoiko aurrekoek egindako lanak ez zituela-eta aintzat hartzen euskaltzain berriak. Maila apaleko “jebo”-en artean kokatzen du F. Krutwigek Orixe bezalakoak Orexakoaren interpretazio erresuminduan; badiotso goi-mailako karlistengana jotzeko, egin ez dituzten euskararen aldeko lanen bila. Harreman garratz honen ondotik Orixek eskatzen dio besteari ez gehiago berari gutunik idazteko. A. Ibinagabeitiari gaztigatzen dio ez dadin horrelakoengana hurbildu[28]. Erlijio kontuak ere badira, F. Krutwigek poema eta artikuluetan ideia budistak, taoistak (Lao Tse), nihilistak, iraultzaileak (Mao tse) argitaratzen baititu aldizkarian[29]. Bada artikulu luze bat (1951) makinaz jota zeukana Orixek non erruki gabe egiten duen F. Krutwigen kontra. I. Fagoagak konbentzitzen du ez dezan argitara[30] beraren aldizkarian.



- Gaurkotze lexikala. Orixek dio euskarak anitz baliabide dituela behar den edozein kontzeptu emateko. Nola? Sintaxia eta morfologia erabil litezke beste hizkuntzetako unitate lexikoak emateko. Bere ustez, edozein herriko semek uler lezake horrela taxututako euskara jasoa; hau pentsaezina da gaztelaniaz, adibidez, zeinetan mendeen joanak erregistro linguistikoen arteko leizea sakondu duen.
- Euskalki literarioa aukeratzea. Orixe aritua zen garai batean lapurtera hobestearen alde. Lapurtarrek, ordea, interes gutxi erakutsi zuten. Ahalegin horrek porrot egin zuen. Galdetzen dio getxotarrari ea azken orduko lapurterazaleek berak izandako arrakasta baino handiagoa espero zuten.
- Soziolinguistikaren alorrean, atzera salatzen da goi mailako euskaldunen utzikeria. Euskal burgesiak ezer gutxi egin du euskararen alde Kataluniakoak ez bezala. Arrantzale eta baserritar eskolagabeen erreminta da euskara. Hari beretik, ekimen bitxia bultzatu zuen F. Krutwigek euskara sendotzeko: zenbait euskaltzale ibili ziren handiki soinekoz herriz herri euskaraz agerian eta nabarmen hitz egiten. Leku publikoetan hori ikusita, biztanleek euskararen gaineko irudipen narrasa uxatuko zuten. R. Lafon hizkuntzalariak ere Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia egin zuenean ere, adierazi zuen Vendryes hizkuntzalaria ahotan hartuta, euskara biziberritzeko zer behar den

> “Izkuntza edapen eta gorapen aundikoa da, ura erabili oi dutenak asko badira eta adimenak argituak eta edertuak bazaizkiote”[31]

Batzuek hizkuntza etxe barnean erabiltzera deitzen dute, eta ez dute ikusten jakintzak (fisika, matematika...) euskaraz lantzeko beharrik.

- Euskal Herri/Euzkadi izendapenen gaineko polemika ere izan zen. Nola deitu nazioari? Eztabaida aberatsa izan zen. Zenbaiten ustez, "Euzkadi" izendapenak Euskal Herriaren atal batean izan zen lege-egoera bat baino ez du adierazten. Beste batzuen ustez aldiz, eusko gudarien odolak deitura hori betiereko egin du.

P. Iztuetaren lanean hauek iruzkindu direnez geroztik, bertan aurki daiteke berri zehatzagoa.

Aparte jarriko dugu J. Miranderen ekarriaren inguruan sortu zen tirandura. Ez ziren publikoki agertu desadostasunak eta ikamikak. Ondorioak, aldiz, bai: sumindura eta etsipena adierazten dute kolaboratzaile askok azken zenbakietan aldizkaria ostentzean; eta arrazoia J. Mirandek argitaratutakoak ziren, antza. Izan ere, euskaldunen ordura arteko konbentzioak apurtu zituen. Bere poemetako fantasia sexualak sekula irakurri gabekoak ziren; emagalduak, lesbianak eta nerabe-erotismoa kantatu zituen. Bestalde sektore ofizialen politika pietistaren aurka jo zuen: txakur-ametsak besterik ez ziren gertatu euskaldun zintzoen esperantza guztiak Mundu Gerraren ostean. Berrarmatze morala aldarrikatu zuen, eta horrek urtetako ohitura zenbait baztertzea zekarren. Diktadurako poliziaren ustez ere, abertzaleak kostu pertsonal handiz nonbait ikurrin bat jartzerekin konformatzen zirenetakoak ziren.

A. Ibinagabeitia aldeko atera zitzaion J. Mirande olerkariari askatasun sexualaren kontu horretan: euskara dena beharrean zegoela-eta, beste hizkuntzetan bezala orotariko irakurgaiak behar zirela leitu. Ekintzarekin predikatuz A. Ibinagabeitiak argazkidun liburuxka erotiko batzuk euskaratu zizkien Parisen lagunei, eta onartu egin zizkioten; geroago Ovidiusen *Maita-bidea* itzuliko zuen. N. Etxanizek (1999-1982) ere kanta "arinak" egokituko zituen euskaraz[32]. A. Ibinagabeitia jesuitetatik pasea zen. N. Etxaniz apaiz gisa zalantzak zituenetakoa zen, bai Elizaren jarrera politikoagatik, baita ere zelibatoak eskatzen zion moral sexualagatik. Poeta bikaina izan zen baina ahal zuen guztia eman ez zuena K. Mitxelenaren arabera.



J. Miranderentzat adierazpen askatasuna eskatzen zuen A. Ibinagabeitiak. J. Garate medikua Argentinan zegoen, eta nahiz eta EAE-ANVkoa izan, sexu-molde liberalegi horiek hastio zituela deklaratu zuen aldizkarian. Askoz ere zalaparta handiagorik ez zen publikatu honen harian, ezpada Andimak eskatutako errespetu humanista goraxeago jaso duguna. Kronologikoki esanguratsua zen, aldiz, zenbait artikulu disidente azkeneko zenbakietan agertzea[33].

Hona arte P. Iztuetak jasotako polemiken eta bestelakoen ingurukoak.

Historiaren aldi honetaz egindako lanak lerrokatzeko ekar ditzagun hona hainbat aditu, denak ez badira ere. P. Sudupek (1995) N. Etxanizen lana aztertu digu; 50eko egitasmoak eta ikuspegiak jakinarazi dizkigu; A. Ibinagabeitiaren lanaz ere arduratu da (1999). Bestetik, J. Azurmendik miratu ditu J. Mirande, K. Santamaria, T. Etxebarria, J. A. Agirre... G. Aulestiaren sintesia panoramikoak argigarriak dira argigarriak dira. P. Urkizuk, P. Sudupek, P. eta I. Iztuetak garai honetako gutun-bildumak atondu dituzte. *Gernika*ri buruzko tesina argitaragabea dauka Tx. Larreak. Biobibliografien bilduma aberatsa Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* sailean dugu

## Gernika aldizkaria

Ikerketa denaz denaz bezainbatean aurreratu dezagun bi atal nagusi izango dituela: aldizkariaren ikuspegi unitarioa eta bertako euskarazko literaturaren berria. Bi metodologia ezberdin erabiliko ditugu, atal banatan. Historiaren alorrekotzat daukagu lana, euskalgintzaren eta literaturaren historiakoa.

### Aldizkariak aztertzeko metodologia

*Gernika* modu unitarioan aztertzeko zenbait autorek jarritako prozedurei lotu gatzaizkie. Hauek dira:

- Fanny Rubio Granadako unibertsitateko irakasleak Espainiako aldizkari poetikoen errolda egin zuen (1976). Bere tesi-lana estatuaren geografiara mugatu zuen, eta 1939 eta 1975 arteko denbora-tartean kokatu zuen. Herrialdeka sailkatzen ditu, eta euskal zein erdal agerkarien errepasoa egiten du hamar orrialdetan Hegoaldeko lau probintzien atal baterakoian. Aipamena azkarra da; haatik, batzuetan, nork publikatu zuen non eta gorabehera editorialak (jabetza, herria...) badakartza. Agerkarietan itzulitako autoreak ere zehazten badaki. Komentatzen du kritika espainiarrari zaila zaiola euskarazko agerkarietara heltzea, bi hizkuntzen tipologia ezberdinagatik. Dakusan arriskua da euskarazko publikazioei behar bezalako pisurik ez ematea oharkabean. Ahaleginaren fruitu, frankismo-garaian Hegoaldean sortu ziren euskarazko aldizkari gehienak biltzea lortu du. Liburuaren aitzinsolas mamitsua ustiatu dugu, eta jardunbidea *Gernika* aldizkariari aplikatu diogu.
- *Jakin*ek kaleratutako bi ikerlanen berri laburra eman dugu. J. Intxaustik 1979an egindakoa da bat non *Euzko-Gogoa*ren ikuspegi neurri handi batean kuantitatiboa eman zuen. Deskribatu dugu jadanik. *Gernika*ri dagozkion mota horretako datuak emango dira bigarren atalean. *Jakin*en 25. urtemugako zenbakiak (1981) ere bideak zabaldu dizkigu.
- Dolores Vilavedra-k Galiziako aldizkariak erreseinatu zituen *Diccionario da literatura galega*ren bigarren liburukian (1997). Mota guztietakoak alfabetikoki eman zituen; literatura galegoaren historiak horrelako prozedura orohartzailea aholkatzen zuen. Puntu hori eta bestelakoak arrazoitzen ditu hiztegiaren hitzaurrean. Gogoeta horren paraleloa egingo dugu ikerketa honetan.
- Juan José Lanz-en lana, azkenik. 1962 eta 1977 bitartean plazaratu ziren aldizkari poetiko espainiarrak miatu ditu (2007). Lan horrek azalduko digun moduan aztertuko dugu *Gernika*.

Bada, eredu hauei segituko gatzaizkie bigarren atalean, esan bezala.



### Ereduen aplikazioa

Atal honetan literatura- eta kultura-aldizkaria den aldetik analizatuko dugu *Gernika*. Ardura metodologikoa letretako adituen ardura omen da, filosofoena. Aldiz, badirudi zientzia gogorretan aurkikuntza bat eginez geroztik ezartzen dela metodoa. Baina, paradoxikoki, gaur egungo paradigma idealista eta positibista honetan ezinbestekoa zaigu gure tresnak zehaztea, alegia, argitu nahi duguna nola ikertuko dugun.

#### F. Rubiori jarraiki

Fanny Rubiok (1976) miatu zituen 1939tik 1975era arteko aldizkari poetiko espainiarrak, eta katalogo modukoa eratu zuen. Doktorego-tesia horren hitzaurrean dio bere ustez gerraondoak demokrazia etorri arte iraun zuela; hain zuzen, bitarte luze honetan poesiak trabak aurkitu zituela “dinamika sortzailea mugatzen dutenak”.

Bere irudiko, aldizkari batek poetak elkartzen ditu aldi baterako, eta poeten ohiko bakardadea murrizten du. Egia da *Gernika*ren kasuan idazleek taldea sortu zutela -”institutua” edo “lagunartea” esaten zioten-; ardatz bateratzaileak ziren ideal humanista eta ge-

rrak sortutako hondamendia. Euskarazko idazleak 1945-53 tarte kronologiko mugatuan funtzionatu zuten koadrilatan multzokatu ditzakegu: Lore Jokoen ondorengoak (D. Dufau, I. Larramendi, J. Aldabe); gerra aurreko giroaren zordun zirenak eta Orixe figura nagusia zutenak (A. M. Labaien, I. López Mendizabal, E. Erkiaga, Basarri); berritzaileak (A. Ibinagabeiteia, J. Mirande, F. Krutwig, J. Etxaide, Iratzeder). Multzokatze hauen arrazoiak beren lanak banan-banan analizatzen ditugunean agertuko dira argiago. Lagina aldizkari honi dagokio, eta multzokatzea ere bai. Inongo idazleren ibilbide osorik ezaugarritzeko asmorik ez dugu.

F. Rubiok Espainiako poesia aldizkarien sorrera burgesia txikiaren baitan ikusten du: gazte-taldetxoek giro probintzianoa astintzeko ahalegina egin dute. Ibilbide gorabeheratsua izan dute maiz ziurgabetasun ekonomikoaren jopu. Guzti horrek interes historikoa ematen die. *Gernika* aldizkariko idazleen kasuan esan daiteke estratu sozial berekoak direla. Inprimatzailea zen I. López Mendizabal, funtzionarioa J. Mirande, Basarri kazetaria, A. M. Labaien eta R. Picavea hautetsiak, J. Eizagirre legegizona... gehienak ikasketadunak, esku-langileren bat edo beste izan ezik (I. Larramendi, J. Aldabe). Egongaiztasun ekonomikoa ezagutu zuen agerkariak; eta giroari dagokionez, apurtzaileak izatea lortu zuten gazteenek, nagusiek konbentzioei jarraitzen zitzaizkien bitartean. Beherago emango ditugu ikasketa-datuak eta adinak idazlez idazle.

Eklektizismoa dugu agerkari espainiar horien beste ezaugarri bat. Donibaneko agerkariaren orrialdeetan ere hainbat joeratakoak aurkitzen ditugu literaturaren arloan: bertsolariak, estetizista, fraide mistikoa, kristau laikoa, joera budistako bakezalea... ; are, genero desberdinak landu dituztenak badira: literaturaren historialaria, gramatikaria, hizkuntzalaria, moralista, politikaria, otoizlaria... Eta norabide horiek adostezinak izateraino hel zitezkeen. A. Ibinagabeitiaren ibilbidea esanguratsua da: zaharragoa izanagatik heziketaz eta adinez gazteekin bat egiten du, zubi-lan modukoa egiten du. Ereti horretan, Orixek gaztigatzen dio "Krutwigen eta jarraitzaileen besotik gizabete ere ez joateko", eskandalizatuta bai-



tago F. Krutwigek argitaratu dituen poema ikonoklastekin non Jainkoa ukatzen den[34]. Orixek soka horretako proposamen linguistiko berritzaileak ere arbuiatzen ditu: "kultur-termina" bezalako sorkari kultistak "elkortzat", eta ezjakintasunaren fruitutzat dauzka, eta gainera ez dira behar, asmatuta daude jadanik beste modu batzuk ("iakintsu-ele")[35]. Labur esanda, *Gernika* aldizkarian ezpal guztiak ez ziren egur berekoak.

F. Rubiok gerraondoa (1939-1975) hiru epetan banatzen du. Lehen biak mailegatuko dizkiogu; hirugarrena lan honetan hartu dugun epetik aurrerago doa.

- 1939-1950. Gudaren trauma bizi-bizia dago. Erbestearen garaia da. Kultura hesituta dago barnean: eskematismo erlijiosoa eta politikoa da nagusi. *Gernika* estatutik kanpo argitaratu zen, eta kolaboratzaileak sarri espainiar estatukoak izanagatik, askatasun handiagoa zeukaten mugaz haraindi. Askatasun erlijiosoa dute eta politikoa ere bai: erlijio- eta politika- aniztasuna islatzen da publikazioan. Heterodoxiak lekua du euskarazko munduan ere bai. Hala ere, esan liteke kanporatuen tematika poetikoa erregimen frankistak bere aginte-esparruan baimentzen zuenetakoa zela: intimismoa (F. Krutwig: "Zer naiz?" poema[36]), sentimentalismoa eta erlijioa (E. Erkiaga, F. Krutwig, I. Larramendi). Horiek ziren literaturak jarraitu zituen ildoak gerraoste minean eta Frankoren agindupean. Geroago etorriko ziren poesia errealista, soziala eta existentzialista.

  Iparraldekoen artean, D. Dufauk kezka tradizionalista agertzen du badoan gizarte-mota baten aurrean: egoera katastrofikoa dakusa baina optimista iraun nahi du[37]; Iratzederrek P. Claudel poeta kristau frantsesari jarraitzen dio eta berak ere kezkak ditu ezagutu duen euskal gizartearen etorkizunaz; J. Mirande Ch. Baudelaireren, E. A. Poeren, estoikoen eta erromantiko ingelesen bideetatik doa, besteak beste.

  Estetizismoaren eta gizartearen arteko harremanean sakondu dezagun orain, J. Meranderen olerkigintza moldeari *estetizista*

deitzen izan baitzaio. E. Erkiagaren “Leihoan”[38] poema ere paristarraren estiloaren zordun ikusi dugu, bai darabilen lapurteraren joerako hizkeragatik, bai zalduneria-giroko maitasun ukatu mediebalistagatik. J. Mirandek gutunetan adierazten du, poesia atseden-aukera gisa eta lan gogorretik landa pausatzeko modu gisa ikusten duela –jolas gisa–. Hala ere, beraren poema eta idazki epikoek gizartearekiko axolagabezia norainokoa duen planteatzen dute. Izan ere, “Eresi” poema ez da batere egonzalea edo jolastia, baizik eta gudura hiltzera joan nahi duen iskiludunaren kanta.

J. Plazaolari[39] kasu eginez estetizismoa da artea balio absolutu erara ulertzea. Josulagun honen iritziz, arteak eginkizun soziala berezkoa du eta itzuriezina. Estetizistak sortze-prozesua jartzen du atseginzaletasunaren eta boluptuostasunaren menpe. Estetizismoak artea lege moraletik aldentzen du. Edertasun hutsaren gurtzak suntsitu egiten ditu egiazkoa eta zuzena. Arteak berehalako eginkizun soziala du. gerraosteko euskal idazleak, Ipar zein Hegoaldekoak, ez du eraginkortasun sozialik, eta mistikoak ere izan daitezkeen mundu pribatuetan murgiltzen dira. F. Krutwigen poemetako[40] kezka nihilistak testuinguru honetan interpreta litezke.

Bestera eta J. Plazaolarekiko desadostasunean, I. Kantek zioen ederra atsegina sortzera bideratua dagoela, eta atsegina interesik gabea dela; estetikaren funtsetik aldendu behar dira onura eta moralitatea, besteak beste[41].

- 1950etik aurrerako aldizkariak. F. Rubiok dio sasoi honetan estatuko periferiako aldizkariak loratzen direla. Aurreko hamarkadatik jada zetorren *Egan*. *Euzko-Gogoa* sortuko zen, baina kanpoan. Ez da hemengo gaia, baina *Egan*/*Euzko Gogoa* aldizkarien arteko dialektika barne/erbeste poloen artean erabakitzen da, kanpoko Orixe eta J. Zaitegi batetik, eta barneko K. Mitxelena bestetik; sortuko den etenak gailurra joko du hamarkadaren bukaera aldean.



Ezinbestekoa da historia berreraikitzeko, aldizkariek gordetzen dutena ezagutzea. Aipatu egin behar dira idazle gailenak eta berdingoak. Beraien bilakaera erakutsiko digute, eta beraien hautu estetikoak ere bai. Agerkarietan bilatu behar dira korronteak sor daitezen beharrezko loturak, eztabaidaguneak eta idazleen eragin soziala. Haatik, ez dira beti ondo hartuak izan ikasketa hauek, F. Rubio Complutenseko irakaslearen esanetan: “Domingo Paniagua, uno de los pocos ensayistas que ha comprendido el interés del estudio de las revistas literarias”[42].

Eta nolako eragina izan zuen gizartean? Koaderno hauek egoera politikoaren fruitu zuzena dira: bonbardaketa bat kari elkartzen diren lagunen talde heterogeneoaren emaitza. Ez du talde politiko batek sortzen. Larrialdi nazionaleko egoeran, da sentsibilitate guztiak bateratzeko premia ikusten duten indar kultural batzuen sorkaria. *Gernika* izenak oso konnotazio zehatzak zituen gerraondoan.Gogoratu dezagun P. Picassoren *Gernika*. Horregatik diogu aldizkari kulturala dela, eta ez poetiko soila.

Tradizio espainiarrean aldizkarien ikerketak zaleak eta kontrakoak izan dituela azaldu dugu. L. Cernuda eta M. Aub dira orrialde horietan erdipurdiko autore asko ikusten dituztenak; originalak aukeratzean egoten izan den utzikeria salatzen dute. Agerkaria poeta berrien agertoki ideala izan daiteke. J. Mirande horrela agertu zen aldizkarian. F. Rubioren iritzia da poeta kaskarrenek ere balio dutela une batean indarrean dauden joerei erreparatzeko. Agian, egitura estetikoak itzulipurdikatu dituen poema hori ez da hain garrantzitsua. J. Aldabe, I. Larramendi, E. Erkiaga... joera baten erakusgarriak dira, nahiz eta argitaratu zituztenak ez izan sekulakoak. Gure ustez, koaderno hauek apailatzerakoan argitaratzaileek izkribu duinak batu dituzte. Jasotzen dituen eta eskatu ez dituen lanak argitaratzeko eskubidea berarentzat nahi du erredakzio kontseiluak; erreseinen arloan, liburu eta aldizkarien berri laburrak ez ditu onartzen baldin eta batera lan kritikatuaren ale bat ez bazaio administrazioari eskuratzen[43].

F. Rubiok eskuan izan dituen aldizkari gehienak bezalakoa da euskalduna ere. Ez da idazleen fruitu umo antologikoak esklusiboki bildumatzen dituena. Bada, aldiz, poeta eta idazleen kezkak azaltzeko erakusleihoa, beraien historikotasunaren lekukoa. Poemek eta artikuluek ez dute osatzen sail ordenatu eta esanguratsua. Poeta arazo gisa agertzen da; bizipen erlijiosoak agertzen dira; naturaren ikuspegi teozentrikoak agertzen dira. Asmo antologikorik ez da, ezpada aldizkariak oro har duen maila gogoangarria. Barneko korronteak patxada handiagoz marraztuko ditugu.

**J. Intxaustiri jarraiki**

Alderdi kuantitatiboak eta soziologikoak kontuanizan zituen J. Intxaustik *Euzko Gogoa* etsaminatzeko. Eredu horri jarraituta emango ditugu *Gernika*ri dagozkion datu zenbait, bai 2.3 atalean zuzendariak eta beraien testuinguruak aipatzean, eta bai fisikoki deskribatu eta beste zenbait datu ematean. Beste zehaztasun batzuk beste leku batzuetan aurkituko dira: idazle emankorrenen ezizenak bakoitzaren fitxa batean azalduko dira; literatur ekoizpenen gaiak ere agertuko dira literaturari eskaini atalean, idazlez idazle, lanez lan.

*Euzko-Gogoa*ren lantalde gidaria marrazten du J. Intxaustik. Hemen *Gernika*ren hiru zuzendarien berri emango dugu.

Aurreratu dezagun *Euzko-Gogoa*ko idazleek batez beste 51 urte zituztela; aldizkarikoek 43 urte. Atera daitekeen ondorioa da *Gernika*ko euskal nomina gazteagoa zela, eta gerra aurreko belaunaldien pisua txikiagoa izan zela. Nolanahi ere 43 urte ez da idazten eta argitaratzen hasteko adinik ohikoena. Jende batek hainbat urtetan isilik egon behar izan zuela uste dugu, gerragatik eta ondoren etorri zenagatik ez baitzen egon plazaratzeko aukerarik.

**D. Vilavedrari jarraiki**

Dolores Vilavedra aldizkako berripaper galiziarren ("publicacións periódicas") panorama eman digu bere Literatur Hiztegian[44]. Hangoez esandakoak erabiliko ditugu hemengoak aztertzeko.



Lehenik eta behin, hizpide ditu kazetaritzaren eta literaturaren arteko harreman gorabeheratsuak. Zenbait datu kontuan hartzekoak dira. Galizierazko literatura bazterrekoa da gaztelaniazkoaren aldean. Horrek egoera batzuk azaltzen ditu. Argitaratze-industria tinkotasun gutxikoa izan da, azpiegiturak eskasak izan dira. Menpekotasun hau, beraz, ez soilik literaturaren balioan, baldintza materialetan ere nabarmena izan da.

Euskal gerraondoko eta erbesteko egoerari so eginez nabarmenak dira Galiziako egoerarekiko antzekotasunak. Poema edo artikulu solteak argitaratzea, berez, errazagoa zen liburu osotuak plazaratzea baino. *Irrintzi* aldizkaria (1958), adibidez, A. Ibinagabeitiak ia bakarrik argitaratu ahal izan zuen Venezuelan, baina iraupen laburrekoa izan zen; sintomatikoa deritzogu. *Gernika*ko kolaboratzaile horrek garaitsu hartan euskara ikasteko metodo bat argitaratu zuen "lagun aberats bati esker", berak zioenez gutun batean. Orixek urte guztiko meza-bezperak itzuli zituen, eta liburua posiblea izan zen antzeko mezenasgoari esker: egoitza eta soldatatxoa jarri zizkioten eginkizunak iraun zuen bitartean. J. Miranderen olerkien bilduma ere bueltaka ibili zen ezin argia ikusiz. Bestalde, ezin merkatu egonkorrik egon abagune hartan. *Gernika*ko eta *Euzko-Gogoa*ko arduradunek diasporan zehar beren aleak kobratzeko oztopoak zituzten.

Zarautzeko *Itxaropena argitaldaria* izan zen garai ilun haietan gerraondoko lehen liburu saila atera zuena: Kuliska sorta (1952). Izatez, gerra aurreko etxea zen, baina eten baten ondoren 1950ean berrekin zion lanari. Urte hartan Orixeren *Euskaldunak* atera zuen; aurrerantzean zentsurak uzten ziona kaleratuko zuen. *Auspoa* argitaletxea ere ordukoa dugu; herri-literaturari buruzkoa izatea ez da kasualitatea, hizkuntzari erregistro berriak eskuratzen ez zionez ez zen erregimenarentzat erronka arriskutsua; R. M. Azkueren folklore bildumak ere argitaratu ziren Madrilen. Beharbada filokarlisten eskuetan zeuden ekimenak onartuagoak ziren, hala baitziren R. M. Azkue bera, eta baita ere Aita Zabala *Auspoa*ko bultzatzailea.

*Jakin* aldizkaria 1956ean jaio zen; geroxeago gaurkotasunezko liburuak argitaratzen hasiko zen. Kontuan izan frantziskotarrek in-

prenta eta argitaletxea zutela oraintsu arte (2009); orain badirudi fraide-bokazioak murriztea enpresa horren beheraldia ekarri duela.

Frankismoaren lehen garai haietan harreman pertsonalen bidez lortzen zituzten argitaratze-baimenak. Adibidez,J. Artetxe idazleak erregutu zion Zarautzera joan ohi zen erregimenaren ordezkari bati erregutu zion bi euskal liburuk argia ikus zezaten zentsura zorrotza saihestuz; euretariko bat 1950eko Orixeren *Euskaldunak* izan zen.

D. Vilavedrak dakarrenez, kazeta eta aldizkariei esker existitu ahal izan zen diskurtso literario galegoa. Eta euskarazkoa? J. Mirande, ordukoetan emankorrena izanagatik, ez zuen bere libururik argitaratuta ikusi hil baino bi urte lehenagora arte (*Haur besoetakoa* 1970ean). *Igela: euskaldun heterodoxoen errebista* literarioa, ordea, sortu ahal izan zuen 1962tik aurrera Tx. Peillenekin. *Olerti* 1959tik aurrera atera zuten Larreako komentuan gutxienez 1970era arte. Karmeldarren *Karmel* 1951tik 1962ra bitartean agertu zen bere bigarren aldian. Erlijiosoek leku egin zioten ohildutako hizkuntzaren literaturari, besterik ezean.

Orduan, literatura hala galegoaren nola euskaldunaren historia ulertzeko berebizikoa zaigu kazeten errealitatea ezagutzea, eta bereziki gerraondoan eta antzeko garai kritikoetan. Beste garai batzuetan ere horrela izan ote zen haztatzekoa litzateke: Lore Jokoen sasoian, adibidez. *Gernika*ren berri emateak testu-kopuruaren berri zehatzagoa eta idazleen nomina osoagoa posible egiten du. Berripaperen errealitateak normaltasun faltsua ezkutatzen du; kinka larrietan kultura behin-behinekotasun hutsean murgilduta dagoenean eta liburuek izaterik ez dutenean, eurek ordezkapen zeregina egiten dute. *Gernika*ko tematika agonikoa kontuan hartu besterik ez dago jabetzeko egoera soziala ez zela normala; izenburutik hasi (bonbardatutako hiri baten omenaldia), eduki bakezale postbelikoarekin jarraitu, eta amaitu J. Miranderen artikuluetako guda deiadarrekin.

Ideia hau borobiltze aldera jakingarriak dira J. M. Torrealdaik (1977) dakartzan datuak: 1950 urtearen bueltan kaleratutako liburuen zerrendan ageri direnak urriak dira, gehienak erlijiosoak eta Hegoaldetik kanpokoak beheraxeago erakutsiko denez. Lehen frankismoaren garaian, gerraondoaren ostean, banaka batzuk agertu ziren. *Gernika* testuinguru honetan oasi txikia zen eta kolaboratzaileek baliatzen jakin zuten; areago, beraren aniztasunaren trataerak “kolore guztietako arrainei” lekua egin zien, Orixeren hitzetan.



Aldizkarigintza berreskuratzeko lantegi honetan D. Vilavedraren irizpideei men eginez, zatikako sorkuntza sakabanatuaren laginak jaso nahi izan ditugu; kualitatiboki, ez dira arnas luzeagoko beste batzuk baino eskasagoak, adibidez D. Dufauren zenbait lan, J. Miranderen “Ametsetarik” poema zein “Ametsa” narrazioa. Hari beretik, aitatu ditzagun koadernoetako txatalak bilduta osatu diren “lan hautatuak” eta web argitalpenak: F. Krutwigen poemen bilduma, J. Miranderen hainbat bilduma (lan kritikoak, poemak, lan hautatuak...), Iratzederrena (*Bizitzaren olerkia* liburua), Basarriren bertso-bildumak eta abar.

Gurean aldizkari batzuk eskuragarri jartzeko ahalegina egin da. Dela edizio faksimilean (*Yakin, RIEV, Euzko Deya...*) dela interneten bidez (*Ibinagabeitia proiektua*, *Olerkien eta Bertsoen hemeroteka*, *Euskera...*), dela DVDko bildumen bidez (*RIEV, Jakin...*). Iruditzen zaigu harrobi honek erresonantzi kutxa handiagoaren beharrean dagoela. Horrek garai bateko berripaperentzat balio badu, zer esanik ez azken hamarkadotako aldizkarientzat. Oraingo momentu editorialean aldizkariek arrakastarik ez izateak, argitaletxeak sendotzegatik ordaindu beharreko bide-saria izan liteke.

Bestalde, kazeten ikuspuntu ideologikoa ezagutzea ezinbestekoa da bertako ekoizpen literarioak ulertzeko. *Gernika*ko irekitasun humanistak azaltzen du argitaratzea euskaldun fededun formularen monokultiboa hautsi duten iritzi-artikulu eta poemak. Jean Etxepare medikuaren Buruxkak (1910) ere lehen salbuespen horien artean dago.

Baina, literatura ote da *Gernika*n argia ikusi duen euskarazko oro? Euskal idazleek gaztelaniaz argitaratzen dituzten idazkiek nolako lotura daukate euskarazko literaturarekin? Euskarazko entsegu-artikuluak literatura ote dira? Elaborazio estetikoa noraino eskatu behar zaie? Argitaratuetatik zer pasatuko da literaturen historiara?

Axularren *Gero* literatura da, ala erlijio arloko debozio-tratatua? Pedro Agerre Euskal Idazleen Elkartean sartuko litzateke gaur egun? Ala liburu horri balio literarioa aitortzea merezi du euskara eredugarriagatik? Etorkizun sendo bati buruz, badirudi ezinutzizkoak direla hainbat *Jesukristoren Imitazio*, sermoi, eta dotrina. D. Vilavedrak neurgailu hau aplikatzen die aldizkarietako ekoizpenei, hizkuntzaren eta literaturtasun estuaren arteko langak gaindituz. Eztabaida zabalik dago literaturaren autonomia demokraziarekin inauguratu den honetan.

*Gernika*n euskarazko testu literarioak daude, eta literaturaren gaineko historia-testuak eta berri laburrak ere bai. Horrez gain, badira bestelako hitz lauzko lanak: literaturgileek pentsamenduzko atalak ondu dituzte, direla politikoak, direla filosofikoak. Lantxo honetan literaturaren ingurukoetan zentratu gara, baina entseguak ere kontuan hartuko ditugu.

Euskararen presentzia frantsesaren eta gaztelaniaren ondoan, testuinguru historikoan ulertu behar da. Euskara hutsezko aldizkari literarioak geroago etorri dira. Orixe erdaraz mintzo zitzaion Txillardegiri; Orixek F. Krutwigi gutunak erdaraz egiten zizkion, eta erantzuna ere horrela jasotzen zuen; Orixeren artikulurik gehienak gaztelaniazkoak dira *Gernika*n. Garai batekoentzat, ezinezkoa zen euskara tresna gisa erabiltzea zientzia egiteko, dibulgazioa bazen ere. Esan genezake konnotazio etniko nabarmenak zituela, inongo unibertsitatek ez baitzuen erabiltzen; diktadurak, onenean, hizkuntza etxe-zokora, erlijiora eta folklorismora kondenatu zuen. Ikerketa-objektua izan zitekeen ez subjektua.

Euskaltzainek gaztelera zerabilten bilkuretan. Euskalaritzaren alorrean, R. M. Azkuek bezala, P. Lafittek, S. Altubek, H. Gavelek... ikerketetan erdara zuten ia tresna bakar *Gernika* aldizkarian. Zer esanik ez, bestelako jakintzagaiak ere erdara hutsean lantzen ziren gerra aurreko zenbait saio gorabehera; Orixe F. Krutwigi kexatzen zitzaion berak eta beraren belaunaldikoek egin zituzten euskara noranahiko egiteko saioak kontuan ez hartzeagatik. Egia da G. Jauregik kimika eta fisika euskaraz jorratu zituela Errepublika saoian. Kexatzen zenak ere "Estetika" artikulu luzea idatzi zuen 1951an *Euzko Gogoa*n. A. Ibinagabeitiak ere *Landareetaz Atsapenak (*1951) idatzi zuen. I. López Mendizabal saiatu zen hizkuntzalaritzaren alorrean euskaraz, baina beraren zientifikotasuna zalantzan jartzen zuen J. Mirandek, adibidez[45]. Gehienetan euskara ez zen kultura jasoa transmititzeko bidea.



Garai hartako diskurtso zientifikoaren arazoa ulertzeko argigarria da K. Mitxelenaren jarrera[46]. Uste zuen zientzia aurreratzen duten artikulu-zientifikoak komunitate internazionalari ulergarri zaion hizkuntzan eman behar zaizkiola, alegia, Suedia bezalako erresumek egiten duten bezala jokatu behar zela; besterik uste zuen jakintza irakasteko tenorean, hor bai ikusten zuen euskararentzako lekua. Talka egin zuen *Euzko-Gogoa*ren planteamenduekin; Guatemalakoek kosta ahala kosta euskara prestatu nahi zuten eginkizun unibertsitarioetarako. K. Mitxelenari kritikatu zioten *Euskara* aldizkarian ikerlan bat erdaraz argitaratzea eta honek gogor erantzun zien.

Fenomeno honen erdigunean F. Krutwig zegoen gerraondoan. Euskaltzain gazteena zen artean R. M. Azkue Bilboko Erribera kalean ezagutu zuenean. Euskaltzaindia paralizatuta zegoen sasoi ilun haietan. Erregistro berriak eskuratu zizkion hizkuntzari. Horren isla dira aldizkarian atera zituen artikuluak: "Euskera Euskalerriaren Kultur-Bidea ledin izan"[47], eta "Sobre la reorganización de la Academia de la Lengua Vasca"[48]. Jakina denez, Leizarragaren lapurtera kultistaren aldeko apustua galdu egin zuen, baina euskara gaurko gradura F. Krutwigek orduan akuilatuta heldu da. Elhuyar taldekoek, UZEIk eta beste batzuek urratsak eman dituzte, baina erronka zaila da gaur egun ere; gaztelaniak, frantsesak eta beste hizkuntza ahaltsuek eragozpenak dituzte zientziaren esparruan ingelesaren aldamenean lehiatzeko mundu mailan. Hizkuntzaren diakronia argigarria da hizkuntzaren funtzioak zeintzuk izan diren ikusteko.

40ko hamarkadan euskaraz literatura idazteak normalean berarekin zekarren nagusiki gaztelania erabiltzea gramatika- eta jakintza-gaietarako, *Gernika*n ageri bezala. Abegi egin diezaiogun aldizkariari horrelako jokabide diglosiko eta guzti, eta ez gara hain bidegabeak izango gure aurreko bidegile finekin.

Galiziako berripaperen historiaz D. Vilavedrak egindako ikerketek ernarazi dizkigute aurreko paragrafoetako euskal paraleloak.

**J. J. Lanz-i jarraiki**

1968 urtearen inguruko agerkari poetikoak Juan José Lanzek (2007) aztertu zituen. Ikerlanaren sarreran zerrendatu zituen kritikak gai honetaz egindakoak. Ondoren 1968ko garai-giroa eta testuinguru politikoa eskaintzen ditu gainetik. 1961 eta 1977 bitarteko publikazioak ikertu zituen. Horrez gain, orduko estetikak dakartza.

Nolako estetikak zeuden Euskal Herrian *Gernika*ren sasoian? Literatura aldizkatzeko badu interesa arazo horrek. Literatur atalen gaiak hirugarren atalean jasoko ditugu. Gizarte-giroa aipatu dugu; estetika korronteei lotuko gatzaizkie. Hurbilketa gisa hona 1940-53 tartean plazaratutako literatura-liburuak (erlijiozkoak ez):

1. Taula: 1940-53 arteko liburu ez-erlijiosoak

| | |
|---|---|
| X. Iratzeder | • *Zakalar*, 1940 |
| | • *Jakes*, 1945 |
| | • *Pindar eta lanho*, 1947 |
| | • *Aphez/ Eguerri/ Ezkila eta tirola*, 1951 |
| | • *Mortuan oihu*, 1953 |
| | • *Ezkongai*, 1953 |
| P. Lafitte (Ithurralde) | • *Murtuts eta bertze… (artho churitzeko zenbait ichtorio chahar),* 1945 |
| T. Monzon | • *Urrundik*, 1945 |
| | • *Gudarien eginak*, 1947 |
| J. Zaitegi | • *Goldaketan*, 1946 |
| J. A. Irazusta | • *Joanixio*, 1946 |
| | • *Bizia garratza da*, 1950 |
| K. Ormaetxea | • *Lontzi Aba´ren ipuintxoak I*, 1947 |
| | • *Lontzi Aba´ren ipuintxoak II*, 1948 |
| Orixe | • *Leoi-kumea*, 1948 |
| | • *Euskaldunak/ Quiton arrebarekin*, 1950 |
| P. Ibarrart | • *Koblak*, 1948 |
| J. Eizagirre | • *Ekaitzpean*, 1948 |
| J. A. Arkotxa (Atxukale) | • *Nork nori ziria sartu?*, 1949 |
| G. Epherre | • *Botzez eta bihotzez*, 1949 |
| N. Etxaniz | • *Itziar*, 1949 |
| | • *Kanta-kantari*, 1951 |
| S. Mitxelena | • *Arantzazu, euskal-sinismenaren poema*, 1949 |
| | • *Ama-semeak Arantzazuko kondairan*, 1951 |
| | • *Ogei kanta Arantzazuko*, 1952 |
| Basarri | • *Atano III. Bere edestia bertsotan*, 1949 |
| | • *Basarri* |
| Y. Etxaide | • *Alos-torrea*, 1950 |
| | • *Purra-purra (Irri ta par egiñarazteko ipui saila),* 1953 |
| M. D. Agirre | • *Aukeraren maukera, azkenean okerra*, 1950 |
| Barrensoro | • *Uztaro*, 1950 |
| E. Arrese | • *Olerki berrizte*, 1952 |
| Etxahun-Iruri | • *Etxahun*, 1953 |
| P. Larzabal | • *Etchahun. Sei gertaldiko ikusgailua*, 1953 |
| Jautarkol | • *Ipuiak*, 1953 |
| X. Lizardi | • *Ezkondu ezin ziteken mutila*, 1953 |

1940ko hamarkada ia osoan argitaratzen dutenak Iparraldeko idazleak dira soilik (Iratzeder, P. Lafitte, Ibarrart, G. Epherre) eta erbesteratuak (T. Monzon, J. Zaitegi, J. A. Irazusta, K. Ormaetxea, Orixe, J. Eizagirre).

Gainerakoan, literatura katolikoa da osotasunean. Postromantikoak daude (E. Arrese, Jautarkol). Gerra aurreko garaien zordun dira batzuk (T. Monzon eta bere epika lirikoa, J. Zaitegi, Orixe, Barrensoro), eta lehenminez begiratzen diete. Beste batzuek errealismo kostunbristara jotzen dute (J. A. Irazusta, J. Eizagirre). Herri literaturaren inguruan mugitzen dira zenbait ( Basarri, P. Lafitte, P. Ibarrart...). Nobela historikoak paratu dituzte (J. Etxaidek), eta poesia erlijiosoa (S. Mitxelenak) ere bai. Antzerkigileek sail berezia egiten dute (Etxahun-Iruri eta P. Lartzabal herrikoiek; M. D. Agirrek kultura jantzia gustukoagoa du...). N. Etxanizek tradizioa berritzeari ekingo dio hurrengo urteetan. Gainetik aipatu ditugun horiek guztiek geratu direnek (K. Ormaetxeak, G. Epherrek, Agirretarrek, Atxukalek) begirada baratzagoa mereziko lukete, agian.

Nabaria da idazle aktibo liburu-sortzaile denek ez zutela *Gernika*n idazten. Agerikoa da ere F. Krutwig eta J. Mirande gazteen estiloko sujet berritzailerik ez dagoela argitaratutako liburuetan. Hala ere, tradizioari eusten diote aurreko biek ez bezala, Iratzederrek, Orixek, J. Etxaidek eta Basarrik agerkari honetan. Hogeita hamar urte inguruko J. Etxaidek ahalegin estilistiko berritzaileak egiten ditu baina helburu moralizatzaile kristaua ez du baztertzen.

J. J. Lanzek 1960ko agerkari poetikoak ditu kontuan. Garai horretako publikazio espainiarren aldean *Gernika* aldizkariak hedadura zabalagoa betetzen du 1940ko hamarkadan ia bakarra zelako; ez zegoen orduan euskaraz literatura argitaratuko zuen beste inor askorik; ez diktaduraren barnean, ezta kanpoan ere. *Egan* elebidunak S. Mitxelenaren zazpi olerki argitaratu zituen (1948); K. Sagarzazuren hamar (1948an eta 1949an); E. Arreserenak hamar (1949); F. Krutwigen bi (1949); J. Alustizaren sei (1950); M. D. Agirreren bat (1950); E. Erkiagaren sei (1951); N. Etxanizen onentxoak (1953). *Egan*ek zenbaki osoa idazle bakarraren lanez betetzen zuen, noiz erdalduna noiz euskalduna. E. Erkiaga kenduta eta oro har, barneko idazleek *Egan*en argitaratzen zuten, eta hor bakarrik. Ezin zitezkeen, noski, gauza berak inprimatu kanpoan eta barnean. F. Krutwigek



kanpoan argitaratu zuen batez ere, eta J. Mirandek poema bakarra argitaratu zuen *Egan*en (1952ko “Nil igitur mors est”).

Alde hori are nabariagoa zen saiakera artikuluetan. Olerkiek, behinik behin, lortzen zuten diktadurak ez ikusiarena egitea. J. Mirandek *Egan*en poesia publikatuko zuen *Gernika* itxi eta gero. *Euzko Gogoa* lan konprometituagoak publikatzeko erabili zuen: “Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz” artikulua 1952an, adibidez.

Orixek eta A. Ibinagabeitiak *Euzko Gogoa*n argitaratuko zuten, *Egan*en ez. N. Etxaniz bietan egiten zuen eta bere izenaz sinatzen. Iratzederrek *Egan*en ez, baina bai *Gernika*n eta *Euzko Gogoa*n. F. Krutwigek hiruretan.

Erregimeneko legedi hertsatzailetik kanpoko agerkariak kultura garaikidearen bitarteko sentibera eta erneak izan zitezkeen, liburuek ibilbide katramilatsua zuten-eta orduan.

Laburbilduz esan dezagun 1939an hasi eta gerraondo luzean errealitatea iraingarria zela, baina zenbait aldizkarik Modernitate eragotziari ateak zabaltzen jakin zutela kanpoan eta estatuan. *Gernika* urrats esanguratsua izan zen.

## Giza-taldea eta beste zenbait datu

Koadernoetako lankideak hiru taldetan multzokatuko ditugu: zuzendariak, euskaraz batez ere egiten zuten kolaboratzaile nagusiak eta erdarazkoak. Hurrengo orrialdeotan zuzendarien berria ekarriko dugu.

### Hiru zuzendariak

R. Picavea (1945ean), J. Thalamas (1948an) eta I. Fagoaga (1949-53 tartean) izan ziren zuzendariak ordena kronologikoan. Dudarik gabe, lehenak taxutu zuen publikazioaren izaera, eta hirugarrenak hartu zuen ardura hori luzaroen. Goazen banan-banan.

**R. Picavea**

Emango ditugu industria-gizon gisa egin zituen hasierako pausuak, geroko jarduera politikoa eta azken urteetako erbestealdia, labur bada ere.

Rafael Picavea (1876-1946) Oiartzunen jaio zen familia liberal, foruzale eta euskaldun batean. Jatorriz eskuarte handikoa ez izanagatik, ezkontza abantailatsua egin zuen; gizon kezkatia zenez, enpresaren munduaren ateak ireki zitzaizkion Bilbon, lanean zegoela enplegatu gisa. Bizkaian burdingintzaren sektorean enpresak sortu zituen.

Hiri horretan S. Arana ezagutzeko parada izan zuen. Berarekin hainbatetan ados egon arren, iritzi kontrajarriak ere izan ohi zituzten. Adibidez, gipuzkoarrak *maketo*ak arbuiatzea arraza dela eta, ez zuen begi onez ikusten; gainera, Espainiarekin lotura guztiak apurtzea eta independentismoa ez ziren R. Picavearen asmoak. Egunkarietan artikuluak idazten zekien, eta harrera nahiko zabala iritsi zuen.

*El Pueblo Vasco* sortu zuen Donostian bere jarduera politikoari babesa emateko 1910ean. Ibilbide arrakastatsua izan zuen egunkariak lehen aldian, eta ekonomikoki errentagarria izan zen. Azken aldia zaila izan zuen, 1936an nazionalek itxi zuten arte. Iraun zuen bitartean nazioarteari eta Espainiako berriei zabalik egon zen; berritzailea izan zen alde askotatik: korrespontsal sareagatik eta horiek hautatzeko irekitasunagatik, besteak beste. EAJri Gipuzkoan zabaltzen lagundu ziola erran komuna zen, baina bestelako iritziemaileek ere lekua topatu zuten publikazioan.

*Novedades* astekari grafikoa ere R. Picavearen sorkaria da. 1909an Bilboko *El Pueblo Vasco* egunkaria sortzen ere lagundu zuen Donostiakoaren irudira. Bizkaiko dirudunek (Ybarra anaiek...) eman zioten berari kazetaren ildo politikoa markatzeko erantzukizuna. Izan ere, beraren eskuineko joera moderatua gogoko zuten Bizkaiko monarkiko liberalek. Akzioak eskuratu zizkioten lanaren sari, baina ekimenaren porrot ekonomikoa ezin izan zuen saihestu enpresa-gizonaren trebeziak.



Beste aldizkako agerkari batzuez ere jabetu zen: *La Ilustración Española y Americana*, *La Noticia*... Horrez gain, bestelako sektore ekonomikoetan ere jardun zuen: bankuetan, ur-hornikuntzan, botikagintzan... baina ez beti atarramentu onarekin.

Politikari gisa egin zuen ibilbidera jo dezagun. 1901etik 1936ra karguduna izan zen eta ez nolanahikoa. Euskal Herria modernizatzen ari zen XX.eko bigarren hamarkada hartan. Pentsamolde kontserbadore eta foruzalearekin jokatu zuen R. Picaveak orduan. Zein zen bere profil ideologiko zehatza, baina?

Lehenengo eta behin aipa dezagun “arazo soziala”; kezka-iturria zen kontserbadoreentzat: sindikatuak, grebak eta Alderdi Komunista zabaltzen ari ziren 1917tik aurrera. Errepresioa aldezten bazuen ere batzuetan R. Picaveak, beste askotan langileen eskubideen alde agertu zen, eta horrek zenbait kontserbadoreren gaitzerizkoa ekarri zion. Katolizismo sozialaren eta kristau-demokraziaren esparruko asmoak zituen. “Bake soziala” bilatzen zuen, marxismoaren eta zapalkuntzaren arteko erdigunean.

Burujabetzaren sailean uste zuen kontzertu ekonomikoak kudeaketa hobea ahalbidetuko ziela euskaldunei. Estatuan ohikoa zen uztartzea ezegonkortasuna zabarkeriarekin.

Berrezarkuntzaren sasoian (1876-1923) hainbatetan izan zen Madrilen ordezkari politikoa eskuinaren sostenguarekin. Primo de Rivera jenerala 1923an igo zen boterera Berrezarkuntzak konpondu ezin zituen arazoak artezteko. Francorena baino malguagoko diktadura militarra, istilu hauen ondorioz jarri zuten: Marokoko porrot militarra, ezkerrak sortzen zuen artegatasuna, kazikismoa eta Espainiaren batasunaren aurkako ustezko erasoak.

R. Picavea Primo de Riveraren aholkularia izan zen kazetaritzari zegozkion auzietan. Iritzi komuna zen behin-behinekoa izango zela jeneralaren muturreko konponbidea, eta normaltasun konstituzionalak bueltatu behar zuela luze baino lehen. Diktadoreak euskal foruak errespetatu egin zituen.

Errege zen Alfonso XIII.ak eta Primo de Riverak indar politikoen sostengua galdu zuten. Errepublika aldarrikatu zen 1931an, R. Picaveak 63 urte zituenean. Bere ustez, estatuko gobernuaren forma ez zen euskaldunen interes orokorra eta ordena soziala bezain garrantzitsua; diktadura onartu zuen arrazoi beragatik errepublika berriari ere on iritzi zion ("akzidentalismoa" zeritzon jokabide horri).

EAJetik hurbileko ordezkaria izan zen Madrilen konstituzio errepublikanoak iraun zuen hiru legegintzaldietan. Eskuinaren irtenbide autonomista zen R. Picavea, alderdi jeltzale maximalistaren eta airean zegoen mehatxu sozialaren aurkako konpromiso-gizona. Politikari independentea EAJrekin lerratu zen, antza, eskuina hotz zekusalako burujabetasun kontuetan, eta baita abertzaleak posibilista bihurtu zirelako ere. "Independiente estatutista" gisa hautatu zuten 1936an EAJtik.

Gerra etorri zenean ospa egin zuen Frantziara ezkertiarren jazarpenaren beldur. Faxistek ere funtsak bahitu zizkioten ailegatu zirenean Donostiara, diputatu filonazionalista baitzen. Euskal Gobernuaren ordezkaria izan zen Parisen 1936an. Bere traiektoria kontserbadorea egokia zatekeen "gorri" eta euskaldunen arteko ezberdintasunak ezagutarazteko nazioarteko iritziari. Bada, iraultza komunistaren lehen urratsak ikusten zituzten zenbait begiralek Espainiako gertakarietan.

Jaurlaritzaren izenean hainbat gauza egin zituen: armak erosi, propaganda, erbesteratuei lagundu, delegazioa arteztu...

*Euzko Deya* sortu zuen 1936an. Berriak eta intelektual katoliko antifrankista frantsesen izkribuak argitaratu zituen (G. Bernanosenak, F. Mauriac-enak, J. Maritain-enak…). Nazioarteko errekonozimendua lortu nahi zuen Jaurlaritzarentzat. Giroa kontrakoa zen: nazio demokratikoek ez zuten istilurik nahi Europan goraka zetozen faxismoekin.

1937an Jaurlaritza Parisera aldatu zen. J. A. Agirrek frente abertzalea bultzatu zuen eta errepublikanoekin eten. R. Picavea beste ezpal batekoa izaki eta independentea, alderdiko txartela zuten beste batzuek hartu zuten beraren lekua. *Gernika*ren fundatzaileak inauguratu zuen marko honen barnean ulertu beharko da beraren lerro editoriala, eta baita ere jarrera horrek alderdiaren aldetik sortuko zizkion oztopoak.



Mundu Gerra lehertzean euskal erbesteratuak Ameriketako bidean jarri ziren eta R. Picavea ere bai. Okupatutako Frantzian, Gestapo espainiar poliziari iheslariak estraditatzen hasi ziren. Konfiskatu nahi zizkieten ondasun oro altxatuen erregimenaren kontra egin ez zezaten. R. Picavea atxilotu egin zuten. Erdi-gaixorik egon zen.

1944ean aliatuek inbaditzaileak kanporatu zituzten. 1945ean Donibane Lohitzunen *Gernika* sortu zuen R. Picaveak. Errepublikari espainiarrekin lan egin nahi zuen bere *akzidentalismoa*ren bidetik. Ez zen hori Jaurlaritzaren asmoa orduan, agi denez. *Gernika*ren lehen zenbakiaren eragilea izan zen. 1946an hil zen.

**Juan Thalamas**[49]

1948an J. Thalamas apaiz irundarrak hartuko zuen bere gain R. Picavearen errebista argitaratzeko egitekoa, hiru urteko isilunea eta gero. Soziologia, teologia eta filosofia ikasketak eginak zituen Frantzian.

1932an apeztu, eta Gasteizeko Apaizgaitegian irakasle aritu zen. Ziurrenez tenore hartan sakondu zuen pentsamolde pertsonalista frantsesa beste lagun batzuekin. J. Maritain, H. Bergson, eta M. Blondel filosofoak ezagutzen zituen.

Euskaraz apenas argitaratu zuen ezer. 1966an saritu egin zioten "Euskaldun ospetsu batzuen erakaspenak" lana. Oro har, bere ikerketek jarraitu zioten R. M. Azkuek *Euskal erriaren yakintza* bildumarekin ireki zuen arrastoari. Haatik, herriaren pentsaera eta jokabidea sakontzeaz ez ezik, euskal gizandien erretratuak egiteaz ere arduratu zen.

Errebista hauek dira bere lanen gordailuak: Gasteizeko *Idearium*, Donostiako *Yakintza*, erbesteko apaizen *Anayak, Anuario del Semi-*

*nario de Filologia Vasca J. de Urquijo, Egan, Anuario de Eusko Folklore, BRSVAP, El Bidasoa...*

Iratzeder olerkari mistikoaren gaztaroko poemak aztertu zituen euskal literaturaren eretzean. Herri-literatura ez ezik, Lizardi ere kontuan izan zuen euskal psikologia aztertzean. *Anuario de Eusko Folklore*k argitaratu zizkion etnografiazko artikulu batzuk. *Gernika* aldizkariko bere ekarpena ugaria izan zen (20 artikulu). *BRSVAP*en euskal mitologia jorratu zuen.

Ikerlari saiatua zen aldetik, bizitza aparteko distirarik gabe igaro zuen. 1981ean hil zen humanista liberal hau.

R. Picaveak aldizkaria sortu, eta zenbaki bat atera zuen. J. Thalamas bakarrik 1948 urtean izan zen zuzendaria (lau zenbakitan), hurrengo hogei zenbakiak I. Fagoagak zuzenduko zituen, nahiz eta irundarraren laguntza izan hurbil.

Idazkiak sinatzeko ezizen hauek erabili zituen: Pierre Andizabal, Miguel Astiz Dorrea, Basaburu, Jean Pierre Iholdi, Juan de Emparan, Juan de Labandibar, Pagogaña...

**Isidoro Fagoaga**

1983an jaio zen Beran. Ahots onekoa zela-eta, kantari gisa trebatu zen Milanen, izeko aberats batzuek dirua jarri baitzuten. Madrilen ere ikasi zuen. Espainia eta Portugaleko antzeztokiak bisitatuko zituen. Tenore wagneriar bati dagozkion operetan trebatu zen: *Parsifal*, *Walkiriak*, *Jainkoen gainbehera*, *Ontzi fantasma*, *Tanhauser...*; Guridiren *Amaya* ere interpretatu zuen 1920an.

Gerra Zibilaren aurreko urteetan Italiako antzokiak arrakastarekin kurritu zituen. 1925etik 1934ra Milaneko Scala izeneko opera-antzeztoki famatuan kantatu zuen.

I. Fagoagak ez zuen maite kontu pribatuak haizatzerik, eta bere bizitzaren inguruko hipotesiekin konformatu behar gara maiz. Adibidez: zergatik utzi zuen operaren mundua arrakastako interpretea izanik? Badirudi, besteak beste, arrazoi politikoengatik utzi zuela.



Gernika bonbardatu zutenean, kantaria Italian zegoen; ez bide zitzaion batere gustatu italiarrek egitada odoltsu hura beren gain hartzea, nahiz eta egileak alemaniarrak izan egiatan, geroago jakingo zenez. Italiak soldaduak bidali zizkion Francori laguntzeko. Gertakari horiek direla-eta, hainbesterainokoan gogaitaraziko zen beratarra non bere karrera bertan behera utziko baitzuen eta Iparraldera itzuliko baitzen.

Musika mundua uztea esplikatzeko beste hipotesia bat egin daiteke. Berak R. Wagnerren (1813-83) operak jokatzen zituen, eta konpositorea susmopean jarriko zen I. Fagoagaren garaian. Konpositorea III. Reich-eko musikari ofiziala zen, R. Strauss-ekin batera. R. Wagnerrek zabaldu zuen supergizonaren ideologia F. Nietzscheren filosofiari jarraitu zion bizitzako aldi batean. Esan behar da testuingurua zehazteko, operagilea aspaldi hila zegoela, eta J. Thalamasi kasu eginez gero, azken produkzioetan F. Nietzschek R. Wagnerrekin hautsi zuela, musikagileak errukiaren eta maitasunaren bide kristaua hartu zuelako. Eztabaida hau guztia *Gernika*ren editorialetan eta artikuluetan irakur daiteke, beraz ez da bortxaz ateratako susmoa.

Zein neurritan ez dakigu, baina II. Mundu Gerrako izugarrikeriak gertatu berritan, tenorea bere ohiko errepertorioaz ase egotea ez litzateke harritzekoa. Nolanahi ere, aldizkariaren lerro humanista adostezina zen esplizituki “botere-nahiaren” inguruko edozein planteamendurekin. Honek ez du esan nahi J. Miranderen lanak argitaratu ez zituztenik, nahiz eta F. Nietzscheren burubideak jaso Pariseko olerkariak. J. Etxepare medikuak urte zenbait arinago euskaldun egina zuen botere-nahiaren filosofoa. Esan dezagun F. Nietzsche dela XX. mendean eta oraindik ere eragin handiena duten pentsalarietakoa Europan. Baina aldizkaria argia da, eta pertsonalismo filosofikoa ezkerreko katolikotasun gisa gauzatzen du arlo politikoan.

Hirugarren arrazoia I. Fagoagak opera-mundua kita zezan berak eman zuen: “la vida de farándula” gogaikarria zitzaion.

Guztiarekin ere, *Gernika* diruz hornitu ahal izan zuen kantari-lanbideko soldatarekin. Idazten eman zituen urteetan ere etorri horri esker bizi ahal izan zen. Zioenez, kantaldi soil batean irabazten zuen idazletzak jarraiko urte askoan ematen ez ziona.

Idazlanetan euskal musikariak ezagutarazi zituen beratarrak: J. Gaiarre, M. Ravel, H. Eslava, P. Sarasate, J. M. Iparragirre… Euskal Herriarekin lotutako poetak ere aipatzen zituen: F. Jammes, P. Loti, V. Hugo[50], Unamuno, Baroja[51]... Politikaren alorrean Iraultza frantsesaren sasoiko Garat anaiak eta Lapurdiko Biltzarra izan zituen hizpide beste batean: gazte lapurtarrak kontzientziatu nahi zituen beren eskubide kolektiboen gainean. Helburu horrekin J. Etxaidek lapurterazko itzulpena egin zuen gaztelaniazko jatorrizkotik.

J. Thalamasek (1976) ematen digu bera bezala Gernikaren zuzendaria izan zen lankide hil berriaren albistea,[52] eta horren kariaz proiektuaren balantzea egiten du. *Gernika*koak II. Mundu Gerrako hekatonbearen ostean gizakia lora zedin saiatu ziren. Pertsonalistak hartu zituzten bidelagun, baina existentzialisten absurdoa nagusitu zela diosku Iruneko apaizak. Ez du pentsatzen filosofia hori benetako espiritualitate baterako oinarria izan daitekeenik.

Balantzean aldizkariak izan zituen oztopoak gogoratzen ditu. Zenbaitek erdi-ezkutuan burutu omen zituzten I. Fagoagaren kontrako ekimenak, Ch. Maurras politikari frantsesaren "politique d´abord" goiburuari men eginez, hau da, edozein ekimen politika ofizialaren beharretara makurtu behar zen. Hala ere, kontsideratzen du Europan eta Ameriketan zeuden euskal intelektualen sostengu zabala jaso zuela.

Isidoro de Fagoagak ezizen hauek erabili zituen argitaratzeko: José de Zuazo, Carlos Ruiz de Galarreta, Ildebrando Fagnani, Fco. Javier de Azkarate, Tristán de Agramuntea, Rául I. Berro Egozkue, Anselmo Goicoechea. Eta euskal aldizkari hauetan argitaratu zuen: *Eusko Jakintza, Euskalerriaren Alde, Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres, Arts et d´Etudes Régionales de Bayonne...*



**Talde eragilearen editorialetatik**

"La Agrupación popular Gernika" izenpearekin agertzen ziren editorialak aldizkarian; euskaraz, "Gernika elkargoa" edo "Gernika Laguntartea".

Aldizkariaren hogeita bat zenbakietan editorialek ez dute pisu bera. Batzuetan mamia dute; beste batzuetan egun seinalatuak gogoratzeko oharrak dira (Gernika bonbardatzearen eta Gernikako Arbola kantuaren ehungarren urteurrenak); eta, beste batzuetan, zenbaki bakoitzaren edukia zerrendatzen da, eta laburzki iruzkintzen.

1945eko lehenengo zenbakian R. Picavea fundatzaileak idazten du nola sortu zen aldizkaria. Erbesteratuak Donibane-Lohitzuneko "Gure Etchea"-n biltzen ziren solas egiteko, beste zereginik ez eta oporretan baitzeuden egoera politikoak hala behartuta. Horien artean hegoaldeko jende kualifikatua eta ez hain kualifikatua zegoen. Adibidez, J. Eizagirre legegizon eta euskal eleberrigilea (Ekaitzpean nobela idatzi zuen), J. M. Barandiaran paleografoa, J. Thalamas humanista, T. Ernandorena idazle euskaltzalea; baita ere V. Navarro eta A. Ruiz del Castaño pedagogoak etorkizuneko Euzkadiren sistema pedagogikoa berritzeko zuzentarauak eztabaidatu zituztenak; eta beste hainbat.

*Gernika* izen sinbolikoa hartu zuten Erregerik boteretsuenak ere bertara joan ohi zirelako zin egitera. Aukeratu zuten azpititulua "Eman da zabal zazu" izan zen, Iparragirreren *Gernikako Arbola* kantu famatutik. Eta lagunartea bataiatzeko ospakizuna egin zuten Gernikako bonbardaketaren zortzigarren urteurrenean.

R. Picavea fundatzailearen hitzetan gazteria hezteko asmoa zuten. Horretarako letrak, historia, etnologia, gizarte-zientziak eta zientzia politikoak bultzatuko zituzten. Gerraren oroimena bizirik zirauen honetan justizia eta tolerantzia txertatu nahi zituzten herriarengan, eta, beste alde batetik, aurrerakuntza modernoarekin bat etorriko zen heziketa sustatu. Horri deitzen dio R. Picaveak "humanismoa":

"Humanismo en Cristo que fué hijo de Dios según los creyentes. Que fué, por lo menos, el más perfecto de los hombres, según los demás"[53]

1948ko urtarrila-otsaila zenbakian *Esprit* aldizkaria aipatzen da. Filosofia pertsonalista hedatzen zuen agerkaria zen eta *Gernika*ko zenbaitek oso begi onez ikusten zuten pentsaera hori.

Kontua da aldizkari frantses hark aztertu egiten duela "fhürer prinzip" delakoa. Hitlerrek sortutako hondamendi humanitarioa eta ekonomikoa gogoan hartuta, gogoetatzen da gizartea horrelako buruzagia onartzera nola irits daitekeen. Napoleonekin gertatu zena Hitlerrekin gertatu zen berriro. Nazioa osotasunean jarri zen buruzagi bakar baten esanetara eta beraren menean. Napoleonek, adibidez, aurreko gobernuaren porrot militarrak garaipen bihurtzen jakin zuen.

Beste alde batetik, aipatu egiten dute editorial berean Baionako Gernika Institutua. Alderdi bakar baten jarraitzailetzat daukate erakunde hori; oker ez bagabiltza EAJ da alderdia. Ika-mikak izan zituzten. Gernika lagunartearen alderdiartekotasuna ez zen beti adosgarria izan partidu konkretu baten lerroarekin bat egiten zuen beste proiektuarekin.

1948ko iraila-abendua zenbakian Espainia barneko egoera ekonomikoa ezagutarazten dute. Jendearen bizimaila kaskarra deskribatzen da: gosea, pobrezia, prostituzioa, tuberkulosia... Pobre eta aberatsen artean dagoen ezberdintasun handia aipatzen da.

Ikusten dute aurrerakuntzaren eta ongizatearen bidean gizarteak sakrifizioak egin behar dituela. Zibilizazioak aurrera egin dezan beharrezkoa da bertute berriak ikastea, eta modu zahar batzuei uko egitea.

Errefuxiatuek bizi dituzten zailtasunak ere salatzen dituzte. Erbesteko estamentu errepublikano ofizialak kritikatzen dituzte, zeren eta gaixoek, umezurtzek, alargunek eta ondasungabetuek ez duten laguntza ekonomikorik jasotzen. Batetik politiko eta errefuxiatu ofizialak, eta bestetik errefuxiatu-masa; euren artean amildegia sortu da.



Aipatzen dira Basarri bezala Landetako baso-lan gogorretan etsitu behar izan zuten erbesteratu andana; gerrak hebaindutako batzuk ere hara joan behar izan zuten.

*1949ko abendua* zenbakiak Batasun Europarrari buruzko editorial laburra dakar. Ildo horretatik, merkatu bakarra eta moneta-erregimena egonkortzea premiazkotzat ikusten dute, alferreko lehiak baztertuta.

*1950eko apirila-ekaina* zenbakian Gernikako bonbardaketaren 13. urteurrenean justizia eskatzen dute, baina gorrotorik ez dute nahi. Bakea Jainkoaren zuzentasunetik etorriko da.

14. eta 15. urteurrenetan ere gogoratuko dute bonbardaketa hori.

*Gernikako Arbola* kantaren ehun urteurrena ospatuko dute *1953ko apirila-ekaina* zenbakian

*1951ko urtarrila-martxoa* zenbakian mehatxu nuklearrak dakarren noraeza dela-eta, gizarteak duen beldurra adierazten da. Gerra Hotzaren urterik gordinenak dira. Aldizkarikoek proposatzen duten irtenbidea da balio eternoen izpiritualtasuna salbatzea.

*1951ko uztaila-iraila* da, Donibane Lohitzune utzi eta Buenos Airesen argia ikusten duen lehena.

*1952ko uztaila-iraila* zenbakian esaten da *Gernika*ren txalupari batera edo bestera eramateko kanpotik egiten zaizkion indarrak badirela. Editorialak dio aldizkaria bizirauteko bidean jarraitzea nahi duela. *1953ko urtarrila-martxoa* zenbakian ere antzeko zailtasunak aipatzen dira.

*1953ko uztaila-iraila* zenbakian itxi behar dutela diote. Pozik daude herria irauteak kezkatu dituelako aldizkariko bultzagileak.

*1953ko urria-abendua* zenbakia da azkenengoa. Mehatxu nuklearrak dakarren kezka azaltzen da. Mundu Gerraren ondorioz sortutako erakunde bakezaleak kinka larrian daude, bakearen eta adiskidetzearen aldeko apustu guztiak oztopatuta daude.

Azken zenbakian oinarri ideologikoak berresten dituzte. *Euskal humanismoa* deitzen dutenaren historia egiten dute berriz. XVI. mendean jarraipenik izan ez zuten Vitoriako Frantzisko, Azpilkue-

tako Martin, Karrantzako Miranda artzapezpikua, Donibaneko Uharte medikua, Zumarragako Juan errebindikatzen dituzte, nahiz eta jarraipenik izan ez zuten. XVIII. mendean aldarrikatzen dituzte Peñafloridako kondearen inguruan bildu zirenak, eta XIX. mendean Iparragirre kantaria. Tradizio horren barruan kokatzen dituzte beren kabuz pentsatzeko eta ekiteko deliberoa hartu zuten *Gernika*ko bultzatzaileak, alderdikeriarik gabe eta gaurko gizakiaren kezkak ulertzeko bildu zirenak 1944an.

Horrelako adierazpenak irakurrita, eta aurreko urteetan sumatzen diren aldizkariaren ibilbidea markatzeko ahaleginak kontuan izanda, bortxa handirik gabe uler daiteke abertzaletasun ofizialak diziplina eskatu ziola, eta erredakzio-taldea ez zela egon amore emateko prest. J. Miranderen abertzaletasun tradizionala kritikatzeko artikulu apurtzaileak izebergaren muturra besterik ez ziratekeen. Aldizkariaren sortze beretik R. Picaveak lerro independente abertzalea markatu zuen, eta arazoak izan zituzten lerro ofizialekoekin, adibidez, 1948an Baionako Gernika Institutuarekin. Beste adibide bat jartzeko: 1948an bertan erredakzio taldeak kritika gogorra egiten dio Eusko Jaurlaritzaren errefuxiatuak kudeatzeko duen politikari. 1952an berriz izan ziren tirabirak, eta oraindik J. Mirandek ez zuen eskandalagarririk apenas publikatu, “Euskaldungoaren etsaiak” eta “Abertzaletasunaren inguruan” artikuluak 1953an argitaratu baitzituzten.

Beraz, Gerra Hotzaren garai zail haietan tenkatuta zegoen nazioartea, eta tolerantziarako ez zegoen lurra ongarrituta. Mamu ezkertiarra nonahi zekusaten Mendebaldeko herrialdeek, nagusiki Bretainia Handiak eta AEBk, hau da, gerra garaitu zutenek. Estatu Batuetan 1954ra arte iraungo zuen *sorginen ehiza* delakoa. McCarthy senatariak komunistak ikusten zituen infiltratuta nonahi administrazio estatubatuarrean, eta politika horrek jendearen arreta eta atxikipena bereganatzen zuen. Komunismoa zabaltzen ari zen Txinan eta Europan.

Kontuan hartzekoa da Eusko Jaurlaritzak AEBrekin harreman estuak izan zituela eta diasporak hainbat euskal etxe ekonomikoki boteretsu zituela Amerika osoan zehar non Iparraldeko *anaia nagusia*ren eragina nabarmena zen. *Gernika*k eskura zezakeen eta eskuratu ez zuen dirua iturri horietatik etorriko zen: euskal etxeak eta Eusko Jaurlaritza.



Ezin esan norainokoan, baina nazioarteko egoera honek euskal mikrokosmosean eragina izan zezakeen; erbesteko euskaldunak AEBtako orbitan egon ziren luzaro garai honetan. A. Ibinagabeitia *Gernikako* kolaboratzaileak egin zuen lan AEBri informatzen jardun zuten euskal espioitza zerbitzuetan.. J. Galindez ere espioitza lanean ibili-eta, Trujillo diktadoreak hilarazi zuen traba egiten ziolako: hura ere *Gernika*ko kolaboratzailea izan zen.

Nolanahi ere, *Gernikako* editorialistek diote oso labur ematen dutela gertatutakoaren berri, eta erasoen kontua argitzea geroko batean egin beharreko gauza dela.

Hipotesia osotzeko esan daiteke gure aldizkaria batasun errepublikanoaren alde aritu zela sorreratik bertatik; nazionalismo bakarrikjokatuzale hegemonikoak ez zuen hori onartu, ezkerrarekiko nazioarteko erreparoa nagusitzean Gerra Hotzaren garaian. Izan ere, jeltzaleek Jaurlaritzan gehiengo nabarmena zuten. Badirudi aldizkariaren itxiera azaltzen duen jarrera dela garai hartako Ch. Maurras erregezale katoliko frantsesaren “politique d’ abord” leloak manatzen duena. Unearen larriak eskatzen du interes oro politikaren azpian jartzea, baita euskal nazionalismoaren arloan ere.

## Deskribapen fisikoa eta beste

### Kolaboratzaileak

Artikulu gehien argitaratu zituzten idazleak aipatuko ditugu, hizkuntzaz hizkuntza. Ikerketaren helburuetarako euskarazkoak aztertuko ditugu batez ere.

- 5 ekarpen edo hortik gora egin dituztenak, euskaraz: Aldabe’tar Joaquin, Iratzeder, Dominique Dufau, Iñaki Eizmendi, Eusebio Erkiaga, Jon Etxaide, Andima Ibinagabeitia, Federiko Krutwig, Antonio Mª Labaien, Ignazio Larramendi, Isaac López Mendizabal, Jon Mirande, Nikolas Ormaetxea.

- 5 ekarpen edo gehiago gaztelaniaz egin dituztenak: Santiago Arellano, Miguel Astiz Dorrea, Carlos P. Carranza, Juan León Cruzalegui, Isidro de Fagoaga, Enrique de Gandía, Justo Garate, Juan Gorostiaga, Cecilia de Guilarte, Adolfo de Larrañaga, Nikolas Ormaetxea, Víctor Ruiz Añibarro, Juan Thalamas.
- 5 ekarpen edo gehiago frantsesez: Jean Aramendy, Pierre Espil, Michel Etcheverry, Henri Gavel, Etienne Salaberry, Juan Thalamas.

### Azpitituluak eta fitxa teknikoa

Aldizkariaren aurreko aldean izenari lagunduz hauek agertzen dira:

1. AZALA: Lehenengo zenbakian (R. Picavearen zuzendaritzapean):






2. AZALA. 2, 3 ,4, 5 eta 6 zenbakietan (J. Thalamasen zuzendaritzapean):




3. AZALA: 7, 8, 9, 10 eta 11 zenbakietan (I. Fagoagaren zuzendaritzapean. Donibane Lohitzunen)

Azpititulua: "“Eman da zabalzazu” al servicio del humanismo popular vasco”.

Bigarren orrialdean hemendik aurrera editoriala agertuko da, ”cahiers de culture humaniste basque” azpititulua gehituta.

Ikonografia: bi uso ageri dira, landare adaska bana mokoetan, hegaka, batera arbola eta gurutzea diren enborren gainean. Guru-

tze-arbola honek jarria du bi adarrak gurutzatze puntuan elorrizkoa edo ereinotzezkoa izan daitekeen koroa bat

4. AZALA. 12. zenbakitik 25 zenbakira ("revista trimestral" gehituta; I. Fagoagaren zuzendaritzapean)

5. AZALA. 19. zenbakia: ("suplemento extraordinario" goiburua Gernika bonbardatzearen 15. urteurrenean, nahiz ez den bestelako aldaketarik nabaritzen argitalpenean).



GERNIKA
" EMAN DA ZABALZAZU "
CAHIERS DE CULTURE HUMANISTE BASQUE.

Nº 19 Suplemento extraordinario

1937 - APILLA'ren 26'yan - 1952

*Gaurko egun ontan bertan, yoan diren bertze urteetan bezalako gogo on berberaz, gogoratzen dugu, Hitler'en aldeko soldadu taldeak, gure Erri santu Gernikan egin ziguten errauste aren amabortz-garren urteburua. Oraindik agitz mingarri zaigu egun beltz ura; egiñiko zauriak bizi-bizirik dagozilako gure Euskalerriaren biyotz-erdian; eta bere ume gaixo aunitz dabiltzalako erbeste otzean.*

*Bañan ekizute, barrabaskeri ura oroitzean, ez daukagu gure kolko minberan gorrotorik pixka bat ere. Larrun mendiya baño aundigoa izan zen ziltakeri arek ez gaitu gaizki-egitera mugitzen. Euskalduna urrikalduna da berez. Ta orrengatik gure Aintzindariak nai luken asmo ederrera makurtzen gara.*

*Guk nai duguna da, Gernika, gure len-lengo Legearen Kutxa, Arbola ta Aritza, oraindik gero izan dedilla gure Ezkil-Dorrea, gu ta bertze Erri guziak korapillo baten lotzeko maitasun eta alkartasunaren lokarria.*

*Ori, orixe bakarrik da egizko osasun-Bidea: bertzerik ez daukagu: ezta nai ere; gure ta Erri guziyen bake ta elkartasuna. Ortik zear ibillirik, noizpait alletuko gara, Goikoak ala nai-ta, euskaldunak dugun egikizun iraunkorrerаño.*

*Lan artan ari gara; ta ortan iraunen dugu beti, iñoiz ere nekatu gabe.*

*GERNIKA Laguntartekoak.*

1948-1953 GERNIKA

69



## ALDIZKARIAREN FITXA:

2. Taula: *Aldizkariaren datu nagusiak54*

| | |
|---|---|
| Izenburua | Gernika |
| Azpititulua | Cahiers Collectifs de Culture Humaniste |
| Egoitzak | Donibane Lohitzune; Buenos Aires |
| Aldizkakotasuna | Hiruhilabetekaria |
| Lehen zenbakiaren data | 1945 (lehen aldiko bakarra)<br>1948 (Urtarrila/Otsaila)<br>(2. aldia) |
| Azken zenbakiaren data | 1953 (Urria/Abendua) |
| Hedapena | Euskal Herria/euskal diaspora |
| Tirada | 700dik gora |
| Salneurria | Lehen alea, 40 libera |
| Neurriak | 21x27 |
| Orrialdeak | 30 bat (1948), 55 (1950), 70 (1951-53) |
| Argitaratzailea | Gernika Lagunartea/Instituto Vasco de Extensión cultural Gernika |
| Zuzendaria | R. Picavea/J. Thalamas/I. Fagoaga |
| Mota | Kulturala, Politikoa |
| Pentsamoldea | Abertzalea (EAJtik gertu) |
| Hizkuntzak | Gaztelera, frantsesa, euskara |
| Euskalkiak | Lapurtera/bizkaiera/gipuzkera |
| Portzentaia euskaraz | %10-%30 |
| Bildumak gordetzen dira | Faksimile erara argitaratuta dago. Lehen zenbakia aparte liburutegietan (Bizkaiko Aldundiarenean…); interneten daude euskarazko idazkiak. |

**Beste zenbait datu**

Orrialde kopuruak

| Urtea | Non | Zenbat zenbaki | Orrialde kop. |
|---|---|---|---|
| 1945 | Donibane Garazi | 1 | 55 |
| 1948 | " | 4 | 106 |
| 1949 | " | 4 | 152 |
| 1950 | " | 4 | 232 |
| 1951 | Buenos Aires | 4 | 356 |
| 1952 | " | 4 | 296 |
| 1953 | " | 4 | 243 |
| *Orotara:* | | 25 | 1440 |

*3. Taula: Gernikak inprimatu zituen orrialde kopuruak*

Ondorioak:

- Aldizkaria erregulartasunez argitaratu zen bere bigarren aldian (1948tik aurrera); urtero lau zenbaki atera ziren.
- Kolaborazioen kopurua gorantza joan zen eta urterik emankorrena 1951 izan zen, aldizkaria Buenos Airesera aldatu zenean.
- Ez dirudi originalen kopurua gutxitzea izan zenik argitaratzeari uztearen arrazoia.

## Alderdi kuantitatiboak

I. Fagoagaren eta Orixeren artean gutun bidezko harremana sortu zen. Orixek aldizkarian pozik idazten zuen, agian beraren izaera apartidistagatik; I. Fagoaga ere pozik Orixerena bezalako luma ospetsu baten idaztiak zituelako. Gutunketa horretatik zenbait datu atera ditugu.

Tiradari buruz datu bakarra aurkitu dugu: 1950ean I. Fagoagaren hitzetan 700 aleko inprimaketa egin zuen, eta 51.000 franko ordaindu zituen. 1000 ale argitaratzeko helburua jarri zion bere buruari[55]. Ekonomiaren aldetik erosleek ordaindutakoa lagungarria



izango zen, baina argi dago I. Fagoagak bere dirutik ere jarri zuena. Kolaboratzaileek kobratzen zuten ala ez, ez dugu inon idatzita aurkitu. Orixeren kasuan, badakigu zenbaitetan mezenas modukoek agintzen ziotela lanen bat epe zehatz batean burutzeko, laguntza ekonomikoaren eta lan-baldintza egokien truke; horrela itzuli zuen *Urte guziko meza-bezperak*. A. Ibinagabeitiak ere bere euskarazko metodoa laguntzaile aberats bati esker ondu ahal izan zuen. Batzuetan aparteko lanbideak zituzten kolaboratzaileek: irakasle (Orixe), Jaurlaritzako langile (A. Ibinagabeitia, amerikarrek diruz lagundutako zerbitzu sekretuetan ere ibili zena), baso-mutil Landetan (Basarri), apaiz (Iratzeder), hautetsi (D. Dufau), langile (I. Larramendi eta J. Aldabe), funtzionario (J. Mirande)... Edonola ere, R. Picaveak bere buruari eta bera bezalakoei jarri zien deitura erabilita, "etxetik botatakoek" galdutako eskubideak berreskuratzeko gogoa zuten, eta dohainik egiten zituzten ahaleginak bizi-beharrak eraginda.

Zabalkundeari buruz, I. Fagoagak jasaten zuen boikota aipatzen zion N. Ormaetxeari. P. Lafittek antza azpilana egiten zien I. Fagoagari eta Orixeri, eta, aldi berean, aldizkariari. "Beren buruari kristau eta demokrata deritzoten sektore ofizialak" salatzen ditu; ez zuten lortu aldizkariari beren kontsignak ezartzerik zuzendariaren hitzetan, baina erraztasunik ere ez zioten ematen bere zabalkundeari. Sektore ofizialekoek "Zismatikoak" zeritzeten aldizkarikoei[56]. Beraz, aldizkaria zerrenda beltzean zegoen zarratu aurreko zenbait urtean.

Banaketa isilpean eta kontrabandoz egiten zen Hegoaldean. Jon Etxaidek, adibidez, *Euzko-Gogoa*ko eta *Gernika*ko paketeak pasatzen zituen. Martuteneko eta Gasteizeko kartzeletara eraman zuten atxilotuta, poliziek harrapatu zuten behin. J. Zaitegik ere, diru-galera horiek lur-jota utzita, eta *Euzko Gogoa* aldizkaria ateratzeari utzi behar izan zion[57].

## Kazeta ala aldizkaria da?

Nolabaiteko erdeinuz begiratzen izan zaio kazetaritzari literaturaren talaiatik herrialde anglosaxoietan[58]. Izan ere, edukiak ditu ira-

gankorrak eta exaltaziorik gabekoak. Hala ere, idazle ugari aurkituko dugu kazetetan Britainia Handian zein Ameriketan zein Frantzian: Ch. Dickens, M. Twain, A. Huxley, E. Hemingway, J. P. Sartre, A. Camus...

Badira hemengo kazetetan ere idazleak: Kirikiño, Lauaxeta, Lizardi, J. Etxepare, Larreko, Manezaundi, A. Egaña, A. Lertxundi...

Altzibarrek[59] "kazeta" eta "aldizkari" terminoak ezberdintzen ditu. Lehenak ezaugarritzat ditu gaurkotasuna duen informazioa eskaintzea berari buruzko iritziarekin batera. Aldizkariak aldiz, ez dira zuzentzen gaurkotasun eta interes orokorreko berrietara, gai sail berezi batzuetara baizik (kultura, giza- eta gizarte-jakintza, literatura, ekonomia...). Gainera, kazetek beste ezaugarri batzuk dituzte: sail finkoak, lagungarri bisualak (argazkiak, grafikoak, marrazkiak...) eta iragarkiak.

Kazetetan berria da lehenengo, eta horrek abiarazten du diskurtsoa. Sail finkoak dituzte; koaderno hauek, aldiz, ez dituzte bi besterik: lehena (editorialak) eta azkena (Notas Comentarios y Correspondencia).

Euskal terminologiaren alorrean, lan honetan, "kazeta" egunkariari edo astekariari esaten diogu. Eta "aldizkari" deitzen diogu errebistari, nahiz "kazetari" hitzaren ordezkorik ez dugun aldizkarietan idazten dutenak izendatzeko –ez bada "kolaboratzaile" hitza–. "Kazeta" hitzak bi adiera ditu: 1. egunkari, 2. aldizkari, astekari, hilabetekari...[60]. Beraz, zehaztugabetasuna.

Begiratu diezaiogun agerkariaren edukiari, ordea. Aldizkari kulturala begitantzen zaigun honek badu antza XIX. mendean loratu zen "ideologia kazetaritzarekin". Genero horrek ideia politiko eta bestelakoen zabalkundea zuen helburu, eta estilo-didaktiko erretorikoa zuen nagusi. Koadernoetan zehar nabarmena da erretorikarako joera, artikulu askotan gertakarien narraziorik ez baitago; iritzia, ordea, maiz ematen da. Helburu pedagogikoa R. Picaveak deklaratu zuen lehen zenbakian:



> "Y esta es la divisa que hemos adoptado para nuestro Centro Cultural: EMAN DA ZABALZAZU, habiéndonos empeñado, burla burlando, en una patriótica labor de fomento y difusión de las letras, de los conocimientos de la historia y de la etnología del país, de las ciencias sociales y políticas, etc. Al efecto educativo, todo ello, de la juventud vasca que viene. Educación a tono con el progreso moderno, inculcando en el pueblo el más hondo sentido de justicia y de tolerancia. ¡La tolerancia santa! que haga posible el convivir pacífico de los ciudadanos, no obstante su distinta manera de pensar. Humanismo, en suma"[61].

Modernitatea bultzatu nahi zuten euskal gazteen baitan.

Klasifikazio eginkizun honetarako gogoratu dezagun sareko *Ibinagabeitia proiektuak* kaier hauek literatur aldizkarien gordailuan kokatzen dituela, hasi *Euzko-Gogoa*rekin eta *Egan*ekin, jarraitu *Oh, Euzkadi!*rekin eta *Garziarena*rekin buka. Ez dira alferrik igaro 50 urte lehenengotik azkenera, eta euskararen estatusa ere aldatu egin da..

Aldizkari kulturala izanik, nolako artikuluak publikatu zituen? Euskaraz datozenak honakoak izan ohi dira: poemak, narrazioak, literatur kritikak eta historiaren atalak, entsegu-artikuluak eta erreportaje bat.

Editorial elebidunek norabide ideologikoari eta politiko-sozialari erantzuten diote. Nabarmena da aldizkariaren ardatz nagusi humanistaren hegalpean agertzen den artikulu andana. Batetik, zuzendariek eurek idazten dituztelako eta, bestetik, humanismoaren kontzeptua zabaltzen ahalegina egiten dutelako artikulugile anitzek. Ikuspegi historikotik Berpizkundeko eta Ilustrazioko aitzindari humanistak ezagutarazten dira: M. Azpilkueta, Karrantzako Bartolome, Peñaflorida... Soziologiaren esparruan, esaterako, Orixek baserritarren gizalegea hobesten du kaletarren jokamoldearen aldean. Bizitza-estiloaren aldetik A. Ibinagaibeitiak bizitza kontenplatiboaren aitzakian zakartzen direnak zentzarazi nahi ditu.

Nazioarteko kulturaren aldetik, Euskal Herriaz sorkariren bat (poema, eleberria, musika-lana, margolana...) ondu duten pertsonaia ospetsuak gogoratzen dituzte, eta baita beren bizialdian hemengoekin lotura izan duten beste antzeko batzuk.

Eztabaidak ere badira, eta orrialde hauetan sasoi hartan izan ziren garrantzitsuenetarikoak atotsi ziren.

Badira poemak, bertso-sortak, historiaren atalak, alegiak, aszetika saioak...

Informazio kazetaritza modernoagoaren eretzean sar daiteke, adibidez, Julene Azpeitia erbesteratuak Mexikori buruz idatzitako kronika-erreportajea, nahiz eta azpian beti egon errebindikazio nazionalista euskal sustraien aldekoa eta espainiarren kolonizazioarekiko kritikoa. Andima Ibinagabeitiak gaur egun ezagutzen ditugun elkarrizketen modukoa egiten dio J. Miranderi Pariseko etxean ("Olerkariarenean").

Entsegu artikuluak ere badira, hitzaldien laburpenak...

Hizkuntzalaritzaren eta literaturaren inguruko azalpen testuak ere badaude. Kultur-aldizkaria da, eta dokumentazio- zein ikerketa-kazetaritzaren airea ere badauka..

Dominique Dufauk ohitura artikuluak ematen ditu. Kostunbrismoak gogoko dituen estanpak dira Ganix euskaldun eredugarriaren historiak gero aztertuko dugunez. Beste gisa bereko pertsonaia bat du *Amatto*: eman dituen bizitza-urratsak eta sortu duen familiaren bilakabidea kontatzen ditu. Idazlea lege-gizona izan, eta kontakizunok tradizioaren adbokazio eta aldezte kutsu batez oratzen ditu, beti ere Ipar Euskal Herria turismoari moldatzeko egiten ari zen ahalegin nekagarriaren markoan.

Errea erbesteratutako kazetari umoristaren eskutik ditugu oraindik orain M. Vázquez Montalbán kataluniarrak idatzi dituen "periodismo ameno"-ko aleen antzekoak. Kazetaritza literarioko estilo batez, letra-gizon erromes eta bohemio tipikoaren kritika



ironiko zorrotza egiten du, bide batez goraipatuz horrelako pertsonaia etxekalte gutxi sortu dituen Euskal Herria.

Azpimarratzekoa da aldizkariaren tonu populista orokorra; ikusi, horretarako, aukeratu dituen azpitituluak: "culture populaire"... Oraindik unibertsitaterik ez zuen Euskal Herri horretako jende ikasiek, garai latz haietan etengabeko kezka zuten hori. Euskararen munduan, aldizkariko kolaboratzailea den Basarriren ikuspegia interesgarria da. "Errespetuzko jendearen" arreta ez du bertsolariek galtzerik nahi, sagardotegietan eta horrelakoetan botatzen ziren behar ez bezalako oieskeriak medio. Hala ere, etsitua dago euskal olerkariek oihartzun gutxi lortzeaz, eta herriaren bihotzera heltzekotan bertsoa erabili behar dela uste du. Erdibideko irtenbidea proposatzen du: gizarte gai ardurazkoak tentuz erabiltzea, bertsolariek ahal duten neurri apalean behinik behin; bestelako neurri zuzentzaile batzuk ere aipatzen ditu: plazak utzi, eta zenbait saio (txapelketak...) teilatupean egitea etab[62].

*Gernika*ren ideiak zabaltzeko ahalmena nolakoa zen? Orixek bere irakurletzako zeuzkan 200 erlijio gizon eta 50 ikasi. Errebistak ez zeuzkan gutxi orduko euskal hedabide batentzako. Adierazgarria da F. Krutwig bere hizkuntza erreforma egiteko lehian, aldizkariko euskal produkzioak kontrolatu nahi izana. I. Fagoagari sinetsi behar badiogu Orixeri eginiko gutunean, getxotarrak editorialak eta artikulu guztiak lapurtera klasikoko arauen arabera taxutzea nahi zuen. Bizkaian aldizkaria zabaltzen lagundu zuen, eta banaketa sarea arriskuan jar zezakeen heinean presiobide ez oso goraipagarriak erabili zituen hori lortzeko. I. Fagoagak ez zuen amore eman, ez baitzitzaion zuzen iruditzen eskakizuna, eta istiluak ez zuen ondoren txarrik izan. Pasadizo hauek Orixeren eta I. Fagoagaren arteko gutunerian (2006) aurki daitezke xehetasun handiagoz.

# Gernika aldizkariko euskarazko literatura

## Literatura aztertzeko metodologia

### Aldizkariko gaiak eta geure aukeraketa

Koadernoek %30 publikatu zuten euskaraz. Baten batek esan du diglosikoa dela horregatik. Erantzun liteke euskarazko literatur atalak duin askoak dituela batzuetan. Erdarazko artikuluetan ere badira interesgarriak direnak euskalaritzarentzat. Originalen zein kolaboratzaileen aukeraketa arretatsua nabari da. Hizkuntza aukeratzea bestela egiten zen garai haietan. Orixe eta eskola berekoek gaztelania erabili ohi zuten orain euskaraz publikatuko litzatekeena idazteko. Gogora dezagun F. Krutwigek eman ziola tresnatasun balioa hainbat esparrutan euskarari gaztea zen artean. Folklorekeria hutsa gainditu behar zela ere azpimarratzen zuen orrialde hauetan.

Kanpoko literatoetan interesgarria zaigu Pierre Lotiren figura. Arrazoia da euskal munduaren bere ikuspegia pisuduna izatea euskaldunontzat, eta herri hori islatzen duen *Ramuntcho* eleberria idazle frantses kontsakratuaren gainerako lan exotikoen artean azpimarragarria izatea. Euskaltzaleek arreta handiz irakurri zuten militar frantsesaren sorkaria, nahiz eta ez beti bat etorri idazlearen aukera narratiboekin. Eusko Ikaskuntzak kongresu batean lan hori antzeztu zuen. Idazle honek euskal eta kanpoko kritikoen arreta jaso du[63].

Literaturaren esparruan joerak eta korronteak mugatzen saiatuko gara. Bertsolarien ondoan esteta aurkituko dugu, eta dauden mistikoen artean, kristauarekin batera budista topatuko dugu. Naturaren ikusmolde teozentriko tradizionala ere ageri da.

Errebistan badira hainbat gai gure lanetik kanpo geldituko direnak. 1945eko lehen zenbakiak zioen azpitituluan zer nolako jakintzagaiak artatuko zituen: “zientziak, arte ederrak, historia, etnografia, ekonomia soziala, politika eta humanismoa”, hitzez hitz.



Badira zenbait entsegu-artikulu, Euskal Herriko gaiak jorratzen dituztenak baina eskuarki erdaraz idazten duten eskribatzaileenak direnak. Euskarazko lanetan lekua izan duten heinean jorratuko ditugu gai horiek, nahiz eta arreta mereziko luketen hemen lekurik egin ez zaien idazlan frantses zein gaztelaniazkoak[64]:

- Modernitatearekin batera Iparraldera heldu zen turismoa. M. Legassek, D. Dufauk eta E. Salaberrik frantsesez eta euskaraz, gainbehera datozen ohiturak[65] agertzen dituzte. D. Dufauren lanak iruzkinduko ditugu. M. Legassek herriaren “kretinizazioa” salatzen du, oraintsu I. Bordak *%100 Basque* liburu sarituan ispilatu duenaren haritik; telebistan *Wazemank* umorezko saioan ere antzekoak ikusi ditugu. Oraintsuko Iparraldeko poesian (D. Landartengan...) eta kantagintzan (Errobiren abestietan...) badira ezinegon horren agerpenak.
- Gastronomiaren gaia umorez erabiltzen du “Errea” kazetariak. Azaltzen du etxekoandrearen bertute kulinarioek nola eragiten duten positiboki etxearen eta etxekoen martxan. Nabarmentzen du ondo prantatutako jakiak etxeko jaunaren gogoa nola onbideratzen duen. Generoaren ikuspegitik, honek eta euskal emakumea agertzen den moduak ikerketa aberasgarrietarako aukera ematen dute.
- Folkloreak eta herri-musikak etorkizunean nola bilakarazi behar diren da F. Madina musikariaren solasgaia artikulu batzuetan. Errusiako musikari nazionalisten jardunbidea eredugarritzat dauka. Abisatu egiten du gehiegizko *jatorrismoaren* aurrean: hemen dugun folkloreak inguru-herrietan izan ohi ditu antzekoak. Humanismo unibertsalistaren ildoko aurkikuntzak dira.

Hainbat laudorio jaso dituen errebistak[66] badu zer aprobetxatua, hainbat jakintzagaitik hurbiltzen zaionarentzat.

Filosofiaren arloan, talde editorialak gure tradizio humanistako puntako autoreen memoria berritzen du: Berpizkundeko eta Ilustrazioko figurak eta Iparragirre. Guztiarekin ere, ideologia honen eragina literaturan ere islatzen da. Orixe, F. Krutwig, A. Ibinagabeitia eta J. Etxaideren artikuluak humanismoaren erakusbide argiak dira. Korronte filosofiko horren inguruabarretan sartuko gara literaturarekin eta euskal idazleekin zerikusia duen heinean, ez gehiago.

R. Picavea fundatzaileak zioen lehen zenbakian asmoa zuela gazteen artean pedagogia soziala egitea. Ideologia aniztasuna zen Lagunarteak zaindu nahi zuen balore garrantzitsu bat. F. Krutwig gazteak "Bakea eta tolerantza" izenburuko artikulua argitaratu zuen. Eskuzabaltasun horrek eramango zuen errebista fin gaitz egitera. Garai-giroa ez zegoen prest J. Miranderenak bezalako aburuak onartzeko besterik gabe. Pedagogia hura antiekonomikoa atera zitzaion, sostengua erretiratu baitzioten ingurune abertzale "dogmatikoek"[67]. Ikuspuntu zabal honen berria hobeto izan nahi duenak artikulu ugari topako ditu koadernoen orrialdeetan erdaraz eta euskaraz.

Aipa dezagun E. Salaberri. Apaiz europazale honen euskarazko eta frantsesezko artikuluak bildumatuta daude. Filosofia irakaslearen aburuak ez ditugu esplikatuko, aldizkarian literaturgile xuxen-xuxena agertzen ez delako. *Gernika*n bizpahiru pieza baino ez ditu euskaraz, eta frantsesez badauka artikulu saila irakaskuntza erlijiosoaren eta estatuaren arteko harremanez ari dena. Gainerakoan, *Ene sinestea* liburua publikatu zuen,[68] eta euskaraz artikulu ugari idatzi zituen.

## Eredua eta azalpenak

Ohar metodologiko orokor batzuk emango ditugu. Literaturaren historia egiteko, oso komenigarria da kritikak idazlan konkretuak aztertzea. Euskal literaturaren alorreko sorkariei batez ere erreparatuko diegu: olerkiei, narrazio gutxiei eta baita ere entsegu gisako artikuluei, baldin eta euskarazko idazleen lumenak badira.



Kritika literarioa edo literaturaren historia zuzenean ematen duten idazkiak ere kontuan hartuko ditugu. Hizkuntzalaritza zein gramatika alorrekoetan ez gara sartuko, eta beste lan baterako abiapuntu izan litezke, horren zenbait berri eman bada ere jadanik.

Literaturgileak taldekatzeko edo multzokatzeko hurbilketa bat egin nahi dugu, baina aldizkariko testuek ezin dezakete inoren ibilbide osoa ordezkatu. Hala ere, joera nagusi batzuk nabariak iruditzen zaizkigu, urte segida hartarako baliagarriak baino ez badira ere zentzu hertsian. Horrela, belaunaldikatzearen auzi korapilatsuan barnegi sartu gabe hiru multzo begitandu zaizkigu:

A. Lore Jokoen ondorengoak: D. Dufau, I. Larramendi eta J. Aldabe.

B. Gerra aurreko giroaren jarraitzaileak: Basarri, Orixe, A. M. Labaien, I. López Mendizabal, E. Erkiaga... Ekipo honetako batzuek literatura gutxi agertu dute *Gernika*n.

C. Berritzaileak: F. Krutwig, J. Mirande, Iratzeder, J. Etxaide... A. Ibinagabeitia ere, zaharragoa izanagatik, eta heziketa jesuitikokoa izanagatik, talde honetako liderrekin (F. Krutwig eta J. Mirande) harreman estuan eta horien bidelagun agertu zaigu epe honetan. Iratzeder sail honetan dago bera ere gaztea zelako artean, baina ia bakarrik.

Elkartu ditugu antzekotasun zenbait aurkitu dizkiegulako. Taldeak heterogeneoak dira, noski. Gure apalean, testuetatik abiatzearekin batean, autore bakoitzaren zenbait ezaugarri jaso ditugu. J. Zaitegirengandik (1950) mailegatu ditugu berak "Aitzolen belaunaldia" marrazteko erabili zituen J. Petersen-en (1984) ezaugarriak: data biografikoak, zerabiltzan ezizenak, joera eta zaletasun literarioak, non plazaratu zituen lanak, hizkuntza joerak, testuingurua, *Gernika*ko idazkien hizkuntza, eta lehenkien zein errekonozimenduaren datak; ahalik eta datu gehien inguratzen saiatu gara[69].

Nonbait irakurri dugunez, zibilizazioaren historia izan ohi dira kritika literarioaren saio historikoak eta, ildo horretatik, ez da kasualitatea taldekatzeok kronologia linealarekin bat etortzea. Termi-

nologia aldetik, *belaunaldiak*, *ekipoak* edo *taldeak* ziren ez dugu hemen ebatziko. Lerro nagusi batzuk marrazten asmatu badugu, ahalegin guztiak ez dira alferrekoak izan. Horrela, jaiotze-datei so eginda:

Euskal Herria ama da. Eta maternalismo horrek haserreak urtzeko boterea izan dezake. Berriz ere, karisman oinarritutako aginpidea dugu, gizarte tradizionaletan ohi zenez. Analogia dakusagu amaren sinboloan, eta aipatzen duen bigarren mailako "Arbola maitearen", hau da, Gernikako Arbolaren irudian gauza bera. Ironiarik ez dago, ez dago nitasunaren adierazpenik.

**"Iparragirre´kin solasian" (1953)**

Gernikako Arbolaren sortzailearen figura berreskuratu nahi du kanta horren ehun urtegarrenean. Iparragirreren biografia osoa egiteko premia ikusten du E. Erkiagak.

**"Gabon othoi" (1953)**

Egutegi katolikoan urte-garai horri dagokion otoitza da. Beste edozein urtekoa izan zitekeen denboraren antolaketa ziklikoari dagokion bezala.

## E. Erkiaga. Laburbilduz

E. Erkiagaren olerkigintza sinbolista da. Idazle katolikoak saio laiko banaka batzuk baditu aldizkari honetan: "Leihoan" eta "Amaren itzala"

Errepublika sasoian hasi zuen ibilbidea, eta 1950eko buelta honetan berrikuntzetara egokitzeko ahaleginak egiten ditu: lapurtera klasikoa erabiltzen du eta nolabaiteko kezka existentzialista erakusten du. Hala ere, ortodoxia ez du baztertuko, eta poema katoliko konbentzionalak egingo ditu.

Aipagarria da duen kezka soziolinguistikoa; hizkera batuaren alde egiten du, eta errealitateak egoeraren larritasuna estalgabetzen dio. Konponbideak nondik etor daitezkeen aurreikusten du, diagnostikoa zuzena baita.



**Orixe**

| **Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k)** | **Ikasketa-maila** | **Literatura- zaletasun eta kontzeptu komunak** | **Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak** | **Testuingurua** | **Idazkien hizkuntza:** | **Noiz hasten publikatzen? Lehenkiak? Noiz obra guztiak argitaratzen? Errekonozimendua** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Nikolas Ormaetxea (1888-1961) -Espuru -Orixe** | Jesuitetan; Loiolan Nobiziadua; Burgoseko "La Merced" ikastetxean bi urtez klasikoak; Erretorika Burgosen; Oñan hiru urteko Filosofi ikasketak. | Tradizio klasikoa. Mistika. Polemikak hauekin: Aitzol, Lauaxeta, Barrensoro, P. Lafitte, S. Mitxelena. Kritikatu zituen hauek: F. Krutwig Txillardegi, Joseba Intxausti. | *Euzko Gogoa, RIEV, Egan, Eusko Ikaskuntzaren Deya, Yakintza, Euskal Esnalea, Euskal Erria, Yakintza, Gure Herria, Euskera, Gernika.* | Lagunak: Lizardi, A.M. Labayen, J. Zaitegi. J.M. Estefania eta R. Olabide jesuitak adiskide eta gidari izan zituen. Azkue lankide izan zuen; A. Ibinagabeitiaren eta J. Zaitegiren lanak laket zitzaizkion. Gizon eta idazle. gisa, Lizardi onetsi zuen. | 18 gaztelaniaz; 8 euskaraz. | Jesusen Bihotzaren Deyan hasi zen. Euskaltzain 1959an; Lizardi eta Olerti sariak 1961ean. Idazlan guztiak 1991ean argitaratu zizkioten. |

*9. taula. N. Ormaetxea idazlearen datu eta ezaugarriak*

Orixeren euskarazko lau artikulu iruzkinduko ditugu; erdarazkoak ez dira literaturaren edo pentsaeraren eremuetakoak. Hizkuntzari buruz Orixek dituen hainbat iritzik –"Comentarios a un artículo de *Gernika*"[90], "Ciencia y práctica de nuestro idioma"[91], "Cultismos pedantería y barbarie"[92] artikulutakoek– eta anitz arlotako beste batzuek P. Iztuetaren (1987) eta P. Goenagaren (1999) arreta jaso dute.

**Orixeren lanak:**

**"Gizabidea" (1950)**

Orixek Europako historia egiten du eta baieztatzen du hamaseigarren mendean kristau-bide ederra baztertu eta gizabide hutsera jo zela. Horrela erantzuten du aldizkariko talde eragileak egiten dion humanismoaz iritzia emateko gonbitea jaso eta gero. Gorrotoa die "humanismo, civilización, cultura" hitzei. Bere ikuspegia puntu hauetan azaltzen du:

I. Baserritarrek zein kaletarrek harremanetarako gizalegea (*cortesía*) zaindu behar dute.

II. Asteasuko Agirreren ereduari jarraiki, gizaki *landua* eta *landugabea* bereizten ditu. Ez dago ados idazten zueneko sasoian bultzatzen zen *jakitea* lantzearekin. Hori baino premiazkoagotzat dauka ohitura onetan gizaberritzea. Gizaki egin zenak (Jesukristo) gizaberritu du gizakia inork baino hobeto.

III. Gizabiderik zuzenena Jainkoaren legeko hamar aginduetan dago.

IV. 1950eko testuinguru internazionalari so, herriak zein bere muga barruan gelditzea da giltza. Herriek bakea lor dezaten denek bestearen eskubideak ezagutu behar dituzte.

V. Gizakiari dagokionez, orokortu egin den indibidualismoaren kritika egiten du:

"Guztiak NI bihurtu gera. BESTE esaten zaien oiek bukatu dira. Ni ta ni, guziok ni, gauzak antolatzeko alderdi txarra"[93].

VI. Idazteuneko Sodomaren eta Gomorraren pasadizora jotzen du. Jainkoak kontua atera zuen zenbat zintzo zegoen hiriotan suntsitu ala ez erabakitzeko. Artikulugileak ere zintzo gutxi aurkitzen ditu bizilekuan, mezatara doazenak gutxi baitira, eta doazen guztiak ez baitira zintzoak.

VII. Eskola kristauaren ikaskizun garrantzitsuena da anaia-arrebek elkar maitatzea.

Bi egoeren arteko analogia dugu, alegia, Bibliakoa eta gaur egunekoa. Ironiarik ez dago, oinarri erlijiosoak denaren zentzua bermatzen du-eta.

**"Ziñets begiak" (1950)**

Artikulu honetako gogoeta A. G. Sertillanges josulagun frantsesak liburuetan egiten dakien pasarteen antzerakoa da[94]. Liburu bat baino gehiagotan idazle frantsesak hamar minutuko meditazioak egunero egiteko bazka ematen du.

Dioenez, gizabide kristauak badaezpadako uneak bizi ditu. Konparazio baterako mutil meatzari baten kasua dakar: Jesukristoren entzuterik duen galdetzean misiolariak, diotso ez duela ugazaba horren meatzean lan egin oraindik.

Gainera, Elizaren hierarkiak eta apaiz batzuek gerran izan zuten jokabidea aitzakia da zenbait kristau hoztu daitezen, tamalez.

Sinesteak politika alorreko ondorio onak ditu: lapurretak, lizunkeria, heriotza eta elkar ezin ikusia saihesten ditu.

Azkenik, kristautasuna oraingotzeko premiarik ez du ikusten, eta epelkeriaren kontra zintzotasun bipil eta borobila aldezten du.

Kristautasunak eskaintzen duen bizitzaren filosofiak J. Zumarraga, J. S. Elkano, Loiolako Inazio, eta F. Xabierren heineko gizonak sortu ditu. Sinestegabe harroei maila hori lortzeko kapaz izango ote diren galdetzen die, eta baita ere sostengu hori gabe erdietsiko ote duten lorpen esanguratsurik.

**"Ezinbestean (Andima´ri)" (1953)**

F. Krutwigen olerki budista bat aitzakia hartuta, Orixek A. Ibinagabeitiari gomendatzen dio horrelako berrizaleekin ez elkartzeko, gizabide hori ez baita balekoa, beraren iritziz.

### Orixe. Laburbilduz

Inguruan gailentzen ikusten duen sekularizazioaren aurrean berrikuntzarik gabeko fede katolikoa berresten du N. Ormaetxeak.

Jakintzaren aurrerakuntza bigarren mailakotzat dauka hobekuntza moralaren aldean. Esan dugun bezala, gizarte modernoak ekintza lehenesten du hobekuntza moralaren ondoan.

Ilustrazioaren goiburua den *sapere aude* (ausartu hadi jakitera) bezalako deiak hotz uzten dute; *zibilizazio*, *kultura* eta kideko izenek zer pentsatua ematen diote, kristautasunik gabe bizitzera garamatzatelako.

Etika kristaua bizitzako gidarik hoberena zaio, historian bezala gaur egun ere.

Ironiarik gabeko munduan bizi da, munduaren neurria erlijioa egiten du-eta.

Bestalde, Orixek egiten duen indibidualismoaren aurkako aldarria liberalismoak demokrazietan bultzatzen duenaren kontra doa.

### Isaak López Mendizabal eta Antonio Maria Labaien

Bi autore hauek ere gerra aurreko giroaren jarraitzailetzat daukagu. Koaderno hauetan ez zuten apenas literaturarik edo entsegurik argitaratu. Ikuspegia borobiltzen lagun dezaketen neurrian euren zenbait datu jaso ditugu taula banatan.



## Isaac López Mendizabal.

| Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k) | Ikasketa-maila | Literaturaren ikuspegia | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak | Hizkuntza joerak | Joera politikoa | Testuingurua | Idazkien hizkuntza: |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Isaac Lopez-Mendizabal (1879-1977)** | Tolosako Eskolapioetan ikasia. Filosofia eta Letretako lizentziatura eta doktoregoa; Zuzenbide lizentziatura eta doktoregoa. | Euskara sustatzeko argitalpenak: *egutegia*, *dotrinak*, *Otoitzak*, *Manual de Conversación castellano-euskera*, *Zenbakiztia*, *Euzkel-erdel biztegia*, *Umearen laguna* irakurtzeko metodoa, *Xabiertxo* eskola liburu arrakastatsua. | *Euskera*, *BIAEV*, *Annuario Alamanaque vasco*, *Eusko Jakintza*, *Euzko Enda*, *Euskal Esnalea*, *Euzko Gogoa*, *Euskal Erria*, *Munibe*, *Eusko Jakintza*. Buenos Aireseko *Euzko Deyaren* sortzaile. Ekin argitaletxea zabaldu zuen. | Bere jarduna hizkuntzalaritzaren ingurukoa izan zen Gernikan. | Foruzaletasunetik abertzaletasunera. Euskaltzaletasun erromantikotik euskaltzaletasun militantera. Lehengo Gipuzku Buru Batzarreko kide (1908). Tolosako zinegotzi abertzalea. EBBko buru (1931-35). | Tolosako euskaltzale taldea gehienek EAJ alderdian ardura-karguak zituztenak: Lizardi, A. M. Labaien, J. Eizagirre, Aitzol, D. Ziaurriz. Euskaltzaleen biltzarrekoa (1901) | 7 euskaraz; 4 gaztelania. |

*10. taula. I. Lopez Mendizabal idazlearen datu eta ezaugarriak*

## Antonio Maria Labaien

| Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k) | Ikasketa-maila | Literaturaren ikuspegia | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak | Hizkuntza joerak | Joera politikoa | Testuingurua | Idazkien hizkuntza: | Noiz hasten publikatzen? Lehenkiak? Errekonozimendua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A. M. Labayen (1898-1994) -Vitoria, Benito -Aspaldiko** | Tolosako Eskolapioetan ikasia eta Zaragozako Komertzio Eskola Nagusian ere bai. | Antzerkigintza, itzulpenak, biografiak, artikuluak, kritikak, euskara batuaren inguruko liburuak. KA. Kardaberaz, J. A. Mogel, Tx. Agirre, A. Onaindia, E. Erkiaga, L. Akesolo, Abeletxe, A. Zubikarai, I. Eizmendi gustura irakurtzen zituen. | *Eusko Jakintza, Gernika, BRS-VAP, Pyrenaica, Euskal Esnalea, Euskal Erriaren alde, Euzko Gogoa, Munibe, Yakintza, Karmel, Argia, Zeruko Argia, Gure Herria, El Día, Goiz Argi, Olerti, Egan, Antzerti, Eusko ikaskuntzaren Deia, Berrizaleak.* | Euskara batuarekiko kritiko; hasieran arbuiatu arren horren aldeko gertakarien indarrez jarrera aldatu zuen. | 1931n EAJko Tolosako zinegotzi; 1936ra arte alkate; 1937 Euzko Jaurlaritzaren ordezkari zenbait kongresutan. | I. López Mendizabalekin Antzertin jardun zuen. Lizardiren, Orixeren eta Aitzolen laguna. Orixeren albazea. K. Mitxelenarekin gutunketa sarria. Bixente Latiegirekin harreman estua. Basarriren miresle.L. Villasante eta Zurutuzaren goraipatzaile. Latxaga eta Arizmendiarrieta estimatzen zituen, batuaren auziaren inguruan. | 6 euskaraz; 1 gaztelaniaz. | Gazterik hasi zen. Teatro osoa euskeraz (I, II eta III), 1977. 1964an Euskaltzain oso. |

*11. taula. A. M. Labaien idazlearen datu eta ezaugarriak*



## Gerra aurreko giroaren jarraitzaileak oro har

Lehengo erlijio zaharrean iraun nahi dute. Garaikideak dituzten zalantza eta aldaketei uko egiten diete. Moralismorako joera dute.

Orain arte aztertu diren idazlanetan, bi topiko errepikatzen dira maiztasun handiagoz: naturan eragiten duen Jainkoaren haserrearena eta ama babeslearena. Idazleen aukera honek lotura du Mendebaldean bizi zen egoera prekarioarekin. Gerrak eta airean zegoen mehatxu nuklearra gizakiaren jokabide makurraren ondorio gisa ulertuz gero, Jainko zigortzailea da gizakiak merezi duena. Amaren figura, aldiz, hondamendiaren erdian dagoen eta hutsik egiten ez duen babesa da.

Humanismo kristaua da autore hauek defendatzen dutena. Garai berriko zalantzen aurrean lehengoa berresten dute, Orixeren kasuan nabarmen oso. E. Erkiagaren kasuan beharrezkoa da *Gernika*tik kanpo argitaratu dituen idazkietara jotzea ikusteko existentzialismoa arbuiatzen duela, adibidez. Beraren apustua ere lehengoari eustea da.

Ez dira ironia darabilten idazleak, bai ordea mundua zentzuzkoa dela uste dutenak. Erlijioa eta etika kristaua errealitatearen bermeak dira. Analogia erabiltzen du talde honetako poetak (E. Erkiagak). "Bethi gose" poeman adibidez:

"Zerumin bizi bat, Iaungokiko gosea
gizonak barrnean dadukan lezea"[95]

Gosearen metaforarekin Jainkoarengana iristeko guraria adierazten du. *Barneko leizea* kontzientziari bestela deitzeko era da. "Leihoan"[96] gizonaren zain dagoen emakumearen irudia beste egoera batzuen analogiaz uler daiteke. "Amaren itzala" bertsoetan ama uler liteke Euskal Herriaren irudi gisa, denok batzen gaituen zera alegia.

## Berritzaileak

Gazteak batez ere sartu ditugu ekipo honetan. Adiskidetasun harremanak zituzten beren artean. Zilegi bekigu A. Ibinagabeitia nagusiagoa ere hemen kokatzea. Gero Guatemalara joango zen *Euzko Gogoa* atontzera Orixe eta J. Zaitegirekin; heziketa jesuitikoa zuten berak bezala eta *Gernika*ko gazteen guztiz bestelakoak ziren, baina bolada honetan tratu estua zuen A. Ibinagabeitiak J. Miranderekin eta F. Krutwigekin. J. Etxaide, aldiz, sinestuna zen aurreko bi horiek ez bezala; baina, bestalde, aldizkariko literatur txataletan ez ezik eleberrietan ere pertsonaiei tankera errealista ematen jakin zuen (*Joanak joan (1955)* nobelan, adibidez)

## Iratzeder

Autore mistikotzat hartu ohi da Jean Diharce. Genero honek duen ala ez duen eginkizun sozialaz mintzatu dira adituak. Batzuen iritziz, mistika ekintza bideratzeko tresna da, eta, horrela, mistiko handi batzuek eraginkortasun zuzena izan dute gizartean: Avilako Teresak edo Loiolako Inaziok, esaterako.

Honako honetan mistiko gazte honek zer nola ikusten zuen gizartea haztatuko dugu (4 olerki). Otoitzaren alderdia ukitzen duten olerkiek beude bere horretan, beraz; ez dira iruzkinduko orain.



| **Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k)** | **Ikasketa-maila** | **Literatura- zaletasun eta kontzeptu komunak** | **Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak** | **Testuingurua** | **Idazkien hizkuntza:** | **Noiz hasten publikatzen? Lehenkiak? Noiz obra guztiak argitaratzen? Errekonozimendua** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Diharce, Jean Marie (1920-2008) -Iratzeder** | Apaiz ikasketak. | Herri kantak; *Gure Herria*ko artikuluak. Sinesmena eta euskara lotzen. | *Aintzina*, *Gure Herria*, *Olerti*, *Euzko Gogoa*, *Gure Herria*, *Eusko Jakintza*, *Egan*, *Otoitzlari*, *Pariseko Euzko Deya*, *Euskera*, *Herria*, *Aintzina*. | Aintzina aldizkarikoak: M Labegerie, Legasse anaiak, P. Lartzabal, P. Xarriton; Hegoaldekoon miresle: Aitzol, J. Eizagirre, T. Monzon, Oxobi (Eskualzaleen Biltzarrekoak). I. Lopez Mendizabal editorearen lagun. Pierre Narbaitz. | 10 euskaraz. | Aintzinan hasi zen. Euskaltzaindikoa 1962an. |

*12. taula. J. Diharce idazlearen datu eta ezaugarriak*

## Iratzederren lanak

### "Berritz ere" (1949)

Tradizioaren aginpidea beretzen du poetak euskararen alde egiteko: mintzairetan lehena da, eta amattoren soa bezain garbia eta urdina. Jainkoaren Mintzoa ere hizkuntza horretan jaso du. Euskal kantuek zoratu egiten dute.

Poetaren nitasuna azaltzen da ametsez eta karrez Jainkoarengana joateko.

Ohoratua ikusten du hizkuntza gazteen plazetako dantzen bitartez.

Lore Jokoen inguruko ideiak daude hemen: adierazpide folklorikoak estimatzea (kantak eta dantzak), euskaldun-fededun ekuazioa...

Nolanahi ere mehatxua sumatzen du arrotzengandik (eskola erdalduna).

Errebindikazio historizista egiten du: erromatar eta moroei garaitu zien bezala garaituko du orain ere euskarak

### "Haitz-pean" (1950)

Olerkariak euskal lurraldearenganako sentimendu telurikoa adierazten du. Naturak olerkia egituratzen du, baina gizarte ostenduta dago olerki aberkoi honetan. Jendea anaitasunezko ospakizunean agertzen da soilik:

"Zatozte, euskal-anaiak, dugun dantza eta kanta

Eta, munduaren maitez, elgar mintza ta maita"[97].

Gernikako Arbolaren eta gurutzearen kontenplazio gozatsua eta pozgarria dugu hemen. Mundutik bereiz bizi den mistikoa ageri zaigu.



### "Zenbat gazteri" (1953)

Iratzeder II. Mundu Gerran soldadua izan zen. Han sentitzen zuen herrimina adierazten du. Bueltan, jaioterri paregabean bihotza altxatu egiten zaio, baina gazte-lagunei oharra luzatu beharrean dago: arrotzak nagusituko dira bertokoen diru-egarriagatik, turismoa zabaltzen ari baita. Euskara eta Fedea gal daitezen beldur da; haatik, ez die ukatzen kanpotarrei udan etortzeko duten zuzena.

Aldaketaren aurrean alternatiba egingarri eta eraginkorrak iradoki ordez moralismoan kukutzen da.

## Iratzeder. Laburbilduz

Pozez betetakoa da Iratzederren abertzaletasuna. Mehatxuak ditu euskarak: eskola, turismoa eta dirua.

Euskara aurrerakuntzarekin adostu nahian, turismoa ez du guztiz ukatzen. Olerki hauetan euskal anaitasuna ospatzen da; zalantzazkoa da, ordea, jokabide horrek izan dezakeen eragin soziala bere soilean. Euskararen mistikari helduleku soziala falta zaio.

Hala ere, euskararen egoera zein den ondo daki, eta hiztunaren egunerokotasuna ezagutzen du. Horregatik bere ikuspuntua gizartearen sozializazio prozesuak (eskola) eta merkatuaren bilakaera (turismoa) kontuan hartzen dituena da. Ez du haraindian bilatzen konponbidea, eta errealitatea aldatu nahi du.

## A. Ibinagabeitia

| Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k) | Ikasketa-maila | Literaturaren ikuspegia | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak | Hizkuntza joerak | Joera politikoa | Testuingurua | Idazkien hizkuntza: | Errekonozimendua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Andima Ibinagabeitia (1906-1967) -Elentxu ...** | Batxilergoa Tuteran, Loiolan nobiziatua; han, klasiko greko-latindarrak maisu beraren formazioan. Oñan filosofia. Teologia eta Zuzenbide Kanonikoa Marneffe-n. Ez zen ordenatu. | Erotikari bideak zabaldu, N. Etxanizekin batera; Salbatore Mitxelenak ere saialdiak egin zituen. Itzulpena landu beharra zekusan. Existentzialismoa hurbildik ezagutu zuen, baina funtsean filosofia kristauari eutsi zion. | *Euzko Gogoa, Pariseko Euzko Deya, Alderdi, Eman, Irrintzi, Euzko Gaztedi, Zeruko Argia.* | Gipuzkera osotua; batasunaren premia nabaritzen zuen. Ez zen proposatu zioten bezala, lapurtera klasikora bildu. | EAJ. Komunismoa faxismoa bezainbat gorroto zuen. Kristaudemokrata. | J. Zaitegi, Lauaxeta, Iñaki Goenaga, F. Sarobe, Plazido Mugika, L. Sagastume, R. Argarate, Korta anaiak jesuitetako formazio garaian; J. Mirande; R. Olabide maisu. | 8 euskaraz. | 1961 euskaltzain urgazle. |

*12. taula. A. Ibinagabeitia idazlearen datu eta ezaugarriak*



Zortzi hitz-lauzko lan argitaratu zituen koadernoetan.

## A. Ibinagabeitiaren lanak

### "Idazle zârrak" (1951)

B. Etxepare lehen euskal idazlea gogoratzen du. Eredugarritzat dauka, bere bulko eta nahikariak estali gabe ematen baititu. Humanismo greko-erromatarra kritikatzen du. Nia adieraztea ezinbestekoa zaio euskal literaturari, neurtitz arimagabeko eta elkorrak egitera kondenatuta jarraituko ez badu. Lizardi autura ekarriz eta berarekin bat[98], euskara balio mundukoien espresiobidea izan dadila nahi du, eta ez beti errealitate garbiena.

Euskal olerkigintza inguruko hizkuntzetakoekin homologatu nahi du: tradizioaren berrikusketa egiten duenez gero, modernoa da horretan.

### "Euskal liburu baten mendebetetzea" (1951)

Kritikan zehar dabilen esana da, ideologia kontuetan aurrerakoiak direnak hizkera arloan kontserbatzaileak direla, eta, alderantziz, kontserbatzaileak berrizaleak direla hizkera kontuetan.

A. Ibinagabeitia hizkera klasikoaren aldekoa dugu. Ikusi besterik ez dago E. Intxauspek idatziko (1851) lexikoa kimatzen duen duen modua:

> "Norbere izkelgiari itsatsiegi ez dugu bear. Onetan ezkero, aurrerapiderik ezin gentzake egin euskal bidean. Egun, gure artean idazle gallen diranak, erro-errotik ezagutzen dituzte izkelgi guztiak"[99]

Modernitateak eskatzen duen tradizioaren berrasmatze arrazionala bultzatzen du A. Ibinagabeitiak, ez bakarrik eduki poetikoaren sailean, baita forma linguistikoaren alorrean ere.

**"Arbola bat: Duvoisin eta Arrese-Beitia" (1952)**

Artikuluak foruen denboretako utzikeria linguistikoa salatzen du, ez baitzen hizkuntza aurrera joan orduan. Arbasoak lotan zeuden axolagabe eta goxo arbolaren azpian: euskaraz jardun arren auzietan gaztelaniaz baino ez zuten idazten. Arrese Beitiak atera zituen lozorrotik, beharrezko astindua eman baitzuen.

Bestalde, Otxandioko santugilearen erromantizismoa zirrimarratzen du:

> "Arrese olerkari ugaria izan zenuten, itsasobetekoa esango nuke. Gaur egunean aren poema eta neurtitzak autuegi aurkitzen ditugu. Romantikuen aupa-bidetik oldartzen zen. Ua ere aldiko seme; beraz, garai artako olerkari arrotzek balia oi ziren kera ta rimaz usuenik baliatzen zan"100

A. Ibinagabeitiaren kritikak etorkizunean dauka jomuga; egoera hobegarria da taxuz eta tentuz jardunez gero, ez dago itxaropena balizko beste mundu batean jartzeko premian. Aurrerazalea da.

**"Mende berriko miraria" (1952)**

A. Ibinagabeitiak Israelek hebreera berreskuratzeko egin duen ahalegin arrakastatsua miresten du. Hilda zegoen hizkuntza jakintza arloan ere erabilgarria izan dadin lortu dute. Pozgarria deritzo ezagutzeari euskaren egoera berean dauden hizkuntzek izan dituzten arrakastak berreskuratze lanetan.

Horren harira erdainkuntzaren ohitura hebraikoa kontatzen du. Kontatzen du nola mutiko jaio berriari egiten dioten zirkunzisioaren ebakuntza, eta inguruko erritu eta ospakizun sozialak. Atala idazle hebrear batek egindako nobelaren pasartea da, eta euskaratuta dator.

Gaur egunean Israeleko estatuak eta gizarteak egin duten politika linguistikoa aintzatesten da artikuluan.



Erdainkuntzaren tradizioa ekartzea exotismo ukitua iruditzen zaigu. Tradizioa hebraikoa deskribatzen da, eta ez dirudi oso arrazionala denik mutikoari halako estutasunak pasaraztea. Edonola ere, Europako ikuspuntutik ikusita A. Ibinagabeitiak egiten duen bezala, nortasun etniko baten erakusle izan daitekeen ohitura da

**"Kultur bideetan" (1952)**

Artikulu hau F. Krutwigek proposatutako lapurtera klasikoaren ingurukoa da. Euskara zeregin jasoetarako gai bihurtu nahian dabilen *Euzko Gogoa* goraipatzen du: amestu ere ezin ziren gaiak eman zituen euskaraz.

Oro har F. Krutwigek sortu duen polemika onuragarritzat dauka, eta azken helburu gisa hizkuntzaren batasuna lortzea jartzen du.

Hizkuntza gizarte aurreratu baterako prestatzeko premia agertzen du A. Ibinagabeitiak hemen.

**"Olerkarienean" (1953)**

A. Ibinagabeitiak elkarrizketa egin zion J. Miranderi Parisen. Elkarrekin lan egiten zuten, eta irizkideak ziren sarri; Parisen biltzen ziren hainbat euskaltzale: erbesteratuak (A. Ibinagabeitia eta F. Krutwig) zein Iparraldekoak (Peillen anaia biak eta J. Mirande). Laburbil ditzagun J. Mirandek A. Ibinagabeitiari elkarrizketa hartan esan zizkion gauza batzuk:

Neurtitzak ozen eta durunditsu bihurtzeko hots-kidegoa ohikoa izan da euskal literaturan, hau da, bertso-lerroaren bukaera beste hurbileko bertso-lerro baten bukaerarekin fonetikoki kidetzea, hain zuzen, bertsolariek egin ohi dutena. J. Mirandek hobetsi egiten du erritmoa helburu hori lortzeko. O. Pazen arabera munduaren eta hizkuntzaren arteko analogia hori ezinbestekoa da olerkigintza modernoan, ikusiko denez. Tx. Peillenen esanetan[101], J. Mirande lagunari joera hori ingeles zaharra irakurtzetik sortu zitzaion. Erromantikoak batez ere ingelesak eta alemanak ziren ha-

sieran: grekolatindarren silabako neurketa baztertu, eta beren herri-literatura zaharretako doinu erritmikoa beretu zuten. Beste erromantikoek (frantsesek...) ere hasierakoek markatu bidetik jo zuten.

Hotsek sortzen duten analogiaren bitartez ematen da aditzera hitzen esanahiak ere adierazten duena. Adibidez, hurrengo ahapaldian "t" kontsonante leherkariaren eta zenbait igurzkarien errepikapenaren bitartez, bizitzaren eta bizitza ezin jasanaren zama adierazi nahi du olerkari paristarrak:

tu, tu, txo, tza "Aspertuaz urturik txo neure biotza

to, ta, tu bizi ontako neke ta negarrak aztu

tz, tu eriotz samurrak denak eramango ditu

tza, za, zti, tza oetzat izango det bihar buztin otza[102]"

J. Mirande elkarrizketatuaren ustez prosarik beteena ingelesez egindakoa da, hizkuntza hori erabili baitute olerkaririk garaienak; euskal olerkigintzan aurrekaririk ez duela dio. Orixek bai erabili zuen erritmoa poesietan analogiak adierazteko, itzulpenetan preseski: "Behi itsua", "Oilarite" eta "Zaldia" lanetan.

Historikoki, lehenengo neoplatonikoek eta gero okultistek, hermetikoek eta libertinoek iraunarazi zuten errealitatearen interpretazio analogikoa XVII. eta XVIII. mendeetan[103].

J. Mirandek ezkor agertzen du bere burua; ironiaz janzten du pentsaera, izan ere, erlijioak ez dio bermatzen armonia iraunkorrik. Gaineratu egiten du optimismoa sentituko balu segituan deklaratuko lukeela. Erlijioaren ordezko mito zelta paganoetan bilatzen du sostengua, druida errekonozitua baitzen bretoien artean. Jakintza parapsikologikoek ere ematen zioten munduaren bestelako ulerkera. Sakontzea mereziko lukeen puntua da.

Barneko egia iruditzen zaio munta handienekoa. A. Ibinagabeitiari goresgarria zaio xalotasun hori. Bi adiskideak bat datoz bide berriak urratzearekin, nahiz eta eskandalua sortu.



**"Hiribarren´en "Eskaldunac" (1853-1953) (1953)**

Euskal literaturaren tradizio urrian idazti hau gogoangarritzat dauka A. Ibinagabeitiak. Modernotasunaren bultzatzaile kontzienteak ziren, bai artikulugilea bai idazle ohoratua:

"Iharruz Eskaldunac, zuen ilhunbeac,
Abia ordu luke argien mendeac!"

**"GERNIKA, gure aldizkaria" (1953)**

Autoreak kredoa azaltzen du aldizkaria ixtearen kariaz puntu hauetan:

- Humanismoaz A. Ibinagabeitiak ematen duen definizioa jasoko dugu:

> "Literatur-humanismuak giza-zentzu guztien eldutasun eta umotasuna berez darakar, ots, gizon-bete ta alde orotarik oso baten erapena. Antxiñako elendarrek iritxi zentzu-giroa duzute humanismoaren uztarik bikaiñena, zentzu-giro eta gogo-giro neurtu eta betea, armoni-oreka goxoenean azi giza-gogo atsegiñarena"[104].

Orixek ere izenpetu zezakeen deklarazioa. Hala ere, ez zen hori erromantikoen humanismoa, zeinean arrazionalismo zurrunak nitasunaren indarrei leku eman zien. Horren jakitun da A. Ibinagabeitia, lauso artean bada ere, eta horrek azaltzen ditu idazle gazteagoekin zituen harremanak, zalantzarik gabe. Kontenplazioak ekintzari ez dio bidea moztu behar: izatez euskaltzalea eta pertsona kulturadun modernoa zena bestelako aurrejuzkuak bazterrera uzteko gai zen. Bere ustez, kontenplazioak ez zuen zakartasunean erori beharrik, aldiz, irekia izan behar zuen:

> "Ez dago zentzu-giro beterik (...) bakartasun soilenean trikuaren gisa bilduta, baranokoetara itsu eta gor dagoen gogo-zakarraren baitan"[105]

Lagun hurkoaren giza-asmo eta ustekizunak ikertu eta haztatu ondoren, onez atotsi behar dira; horrela jokatu zuen J. Mirande ikonoklastarekin literaturaren alorrean, eta F. Krutwigekin honek hizkuntzaren alorrean lapurtera klasikoa proposatu zuenean.

• Zentzu kritikoa. Kritikari eskubide ukaezinak ikusten dizkio:

> "Ez baitago uki-ezinik lurbira honetan. (...) Giza-burmuinak landara egotzi teori garaienak ere, azta, ztabaikatu eta iñarrostekoak dira"[106]

Kritika eta ukazioa edo negazioa dira poesia modernoaren ekarpen behinenetakoak. Testuinguru honetan, ulergarria egiten zaio beraren lagun J. Mirandek konbentzioak apurtzea, nahiz eta askori eskandalagarria iruditu.

*Gernika* itxitearen arrazoia. *Senide arteko hilketa* bat izan zen aldizkariaren amaiera. Kontrako propaganda egin zioten suntsitu arte, A. Ibinagabeitiaren esanetan. Gertakariak kulturarekiko zegoen axolagabezia salatzen zuen gainera. Alde bitik ikusten zuen utzikeria: hizkuntzarekiko baldarkeria batetik, eta gogo-aurrerapenerako axolagabekeria bestetik:

> "Etsaiek arrizko Gernika suntsi ziguten, eta anaiek gogozko *Gernika* au suntsi nai digute"[107]

## A. Ibinagabeitia. Laburbilduz

Euskalgintzaren hainbat alderdi eguneratzearen alde egin zuen. Belaunaldiko jauziak gorabehera, gazteagoen lankidea izaten jakin zuen. Hizkera aldetik gipuzkera osotuan idazten jarraitu zuen, *lapurtera klasikoan pulunpatzeko adinekoegia* zela-eta, beraren esanetan.

Ez bakarrik literatura eta hizkera kontuetan, sexu kontuetan ere irekitasuna erakutsiko zuen Ovidioren *Maita-bidea* itzultzean. Eta kintako lagunak gehiegi asaldatu gabe -zerbait bai, hala ere- sekularizazio bidean urratsak ematen asmatu zuen.

Guztiarekin ere jesuitetako formazio klasikoak markatu zizkion jokabideak: egingo zituen itzulpenak antzinate klasikoko idazleenak izango ziren (Virgilio, Ovidio…) gehienbat. *Euzko Gogoa*ren proiektuan parte hartzea proposatuko zioten ondoren, eta lankideak bestelakoak izango zituen.



Poesiaren ikuspegi modernoa du-eta, bultzatu egiten ditu B. Etxepare eta J. Mirande bezalako poetak. Arrazionalismo harmoniatsua baino haragoko sentimenduak adierazten dituen lirikaren alde dago.

Modernoa da A. Ibinagabeitia, zalantzarik gabe kritika eta eztabaida baliozkotzat ematen dituenean edozein iritzi onartzerakoan.

## F. Krutwig

| Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k) | Ikasketa-maila | Literaturaren ikuspegia | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak | Hizkuntza joerak | Joera politikoa | Testuingurua | Idazkien hizkuntza: | Noiz hasten publikatzen? Lehenkiak? Errekonozimendua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Federiko Krutwig (1921-1998)** | Poliglota. Merkatal Irakasletza. Ekialdeko hizkuntzak La Sorbonne-n eta Bonn-en. | Ekialdeko erlijioak, buddhismoa, hinduismoa. Helenismoa. Iparraldeko idazle klasikoen berreskurapena. | *Gernika*, *Egan*, *Euzko Gogoa*. Euskal Herrira itzulita: *Egin*, *Deia*, *Bilbao agerkarietan*. | Euskara jakintza-tresna egitea. Nazioarteko terminologia kulturaren aldekoa eta garbizalekeriaren kontrakoa. | ETAren ideologo. Kulturan eta jakintzan ezker-aristokrazia intelektualekoa. | Euskaltzaindiaren suspertzailea. Euskara batuaren lehen teorikoa. Lapurtera klasikoaren aldeko taldeburua (E. Erkiaga, J. Mirande, L. Villasante, I. Berriatua). | 7 euskaraz; 1 gaztelaniaz. | *Gernika*n hasi zen. 1947an euskaltzain oso. 1997an urrezko ezteiak. Helenisten munduko sari bereziak. |

*14. taula. F. Krutwig idazlearen datu eta ezaugarriak*



Hona F. Krutwigen lanak sailetan emanak: 4 olerki (bi original eta bi itzulpen); bi pentsaerako entsegu; bi artikulu hizkuntzari lotuak (Euskaltzaindia berrindartzeaz eta lapurtera klasikoaz).

Euskaltzaindia berritzeko orduko saioen berri eman zuen P. Iztuetak (1991); lapurtera klasikoaren ingurukoen kronika ere bai. Hara jotzea dauka irakurleak puntu horietarako; hemen aztertuko ditugu F. Krutwigen olerkiak, olerki itzuliak eta entseguak.

### F. Krutwigen lanak

#### "Euskara Euskalerriaren Kultur-Bidea ledin izan" (1951)

Hizkuntza kulturaren beharrizanetarako doitzeak kezkatzen du autorea. Nazionalismo linguistikoaren fruitua da garbizaletasuna beraren irudikoz, eta, kontrara, mailegutzak hizkuntza moderno orotan duen emankortasuna azpimarratzen du. UZEI hiztegigileen taldeak aburu hauek praktikan jarriko zituen hamarkada batzuk geroago.

Lapurtera klasikoa proposatu zuen batasuneko hizkuntza landua eratzeko, eta arrakasta izan zuen *Gernika*ko idazle gazteen artean (J. Mirande, E. Erkiaga, L. Villasante).

#### "Gernikako Arbolaren Fruktuak: Egia ta Tolerantza" (1951)

Testu honetan jorratzen dira tradizio erromantikoa arduratu duten hainbat gai. Poema zein hitz-lauzkoetan ildoak antzerakoak dira; ideia nagusiak hauek dira:

- Egia eta kritika. Dogmak ezartzerik ez dago. Sistema filosofikoak iragankorrak dira ibaietako hozkak bezala, ez baitago magisterio hutsezinik. Erromantikoena ere bazen etengabeko zalantza honek nihilismora gidatu zituen aitzindari haiek (Novalis, F. Schlegel...); F. Krutwigen poesietan ez da besterik agiri.

Zalantza iraunkor horrek tolerantziari atea zabaltzen dio: zelan eta egiaren jabe inoiz ez garen, besteren ikusmoldeak errespetatzea

dagokigu. Egiaren izenean, beraz, ezin onar daiteke inolako bortizkeriarik, jazarpenik edota erasorik.

- Ezkortasuna. Eklesiasteseko pesimismoa bere egiten du. Dena da lilura, eta lilura baino ez. Egia gugan dago, ez dugu etsaien kontra arituz zertan bilatu. Gerra ondoko giroan orokortasun hauek esangura zehatza zuten, beligerantzia oro baztertzen baitzuten.
- Tolerantzia. Kontenplaziorako deia egiten du, geure burua ezagut dezagun inoren akatsak bilatzen ibili beharrean: diferenteak gara, zeinek bere bidea egin dezala.
- Aurrerapenaren alde eta kontra. Aurrerapena etengabearen ideia Ilustrazioan sortu zen: betegintzarrea etorkizunean jartzen du, eta ez erlijioaren beste munduan. Teknikaren eta zientziaren alorrean egia izan daitekeen hori, giza- eta gizartezientzietan eztabaidagarria da[108]. Bi gerra suntsitzaileren biharamunean eta Gerra Hotzaren erdian, autoreak aurrerapena zalantzan jartzen du, Europan beste askok bezala. Arbuiatu egiten du F. Nietzscheren botere nahia goiburu duen supergizakia, irteerarik gabeko militarismora bideratu baitu gizartea.
- Nihilismoa eta filosofia budista. Ertzoek edo burugabeek bezala fitskeriak maitatzen ditugu, eta Mâyâ-ren estalkiak liluratu egiten ditu gure begiak, erratu egiten baikara behin eta berriro. Hortaz, bakea da balio nagusia: Gernikako Arbolaren fruituak izan bitez Egia eta Tolerantzia.

**“”Haltzen errege” (Goetheren “Erlkoenig”) baladaren itzulpena” (1951)**

B. Spinozaren iturriko panteismoaren erakusgarri bat. Naturaren pertsonifikazio legendarioa agertzen da: umea aitaren besoetan hiltzen da, basoa zeharkatzen ari dela; Haltzen Erregeak haurra limurtzen du beraren amarekin eta alabekin jolastera joan dadin haraindiko erresuma liluragarrira. Erromantikoen gustuko sentiberatasun tragikoa dugu. Pasadizoak indar iradokitzaile handia du. F. Schubertek musikatu zuen Goetheren poema hau, eta Lieda egin.



**“Zer naiz?” (1951)**

Orixe bere onetik ateratzen zuten ideiez ehundua dagoen poema. Haraindiko munduaren perfekzioa ukatuta ironian kokatzen gaitu autoreak. Areago, hobegarritasun posiblean ere ez du sinesten:

“Bethi ikusiko dugu begi itsuez
Gezurra baita gure Asturua
kosmos baithakusagu estalduez”[109]

O. Pazek zioenez poesia modernoa ez dator beti bat aurrerapenaren optimismoarekin. Olerki honen nihilismoa nabaria da.

**“Hoelderlinen “Schicksalslied”. Zoriko Eresia. Poemaren itzulpena (1951)**

Itzulgaia hautatze bera adierazgarria da: Hölderlinek Antzinate greziarraren bestelako interpretazioa egin zuen, eta mundu erromantzean kurritzen zuenaren desberdina. Erromantizismo alemaniarrak uko egin zion tradizionala zen klasikotasunaren interpretazioari, eta ahalegin horretan Hölderlin nabarmendu zen. Itzulpenean, kezka erlijiosoak darabil F. Krutwig.

Analogia ironiarekin borrokan ikusten dugu. Poetak Jainkoen mundua eta gizon jasankorrena ondoz ondo jartzen ditu. Jainkoak lur samurretan dabiltza betiko argitasun geldoari begira; gizakiak, aldiz, ezbaiaren mugetan ordurik ordu aienatu eta erori egiten dira. Paraleloa ironikoa da: gizakiaren patua garratza da, ez baitu atsedenik. Heriotzara arte, zalantzazkoa da gizakiaren bizi beharra.

**“Humanismu, gizabidea” (1951)**

Asiako lezioak dakartza Europarentzat: Lao Tse eta Mao Tse aipatzen ditu. *Tao Te King* zen lehenaren -egiatan existitu zenez ez dakigu- obra, eta Txinak K. A.-ko seigarren eta bosgarren mendeetan

bizi izan zituen gerren harira bakea lortzeko pentsatua dago. Aipua ez du abasberuan aukeratu artikulugileak. Mundutik apartatzera bultzatzen du, eta azpimarratu egiten ditu arrakastarako makaltasunak sortzen dituen aukerak; besteekiko jarrera asertiboa baztertu eta desioak murriztea proposatzen du[110]. Bide batez, F. Krutwigek *nazinokeria* gaitzesten du gerrazaletasuna dakarren heinean.

Berriz ere hitz-lauzko saio honetan Aurrerapenaren eta Zibilizazioaren ikuspegi ezkorra ematen du. Materialismoa salatzen du: llehengo artisau burujabea bihurtu da oraingo fabrikako langile jopua; gizakia zena orain masa da, eta izpiritu gabeko materia bilakatu da.

Greziako mitologian kontakizun baliagarriak aurkitzen ditu Euskal Herriaren hondamendia irudikatzeko: jainko Olinpikoen arteko ika-mikek (*hybris*) ekarri dute Gernikaren (Heliopolis) suntsiketa (*Nemesis*).

Baina aurrerakuntza moralean sinesten du: bakea eskuratu daiteke jarrera egokia izanez gero.

**"Deo Ignoto" (1951)**

Poema mistikoa, barnebiltze ariketa. Giro barnekoian gizarteak ez du lekurik. Ekialdeko pasibotasuna darakuski hango kontzeptu budistekin batera. Espainian ere erlijioa eta intimitatea ziren diktadurapeko poeten babesa.

Hautsi egiten duela tradizioarekin argi erakusten du tematika berritzaileak.

## F. Krutwig. Laburbilduz

Modernotasunaren kritika humanista egiten du: aurrerapenik dagoen ala ez zalantzagarria da; industrialismoak aberetu egiten du; materialismoak izpiritua pobretzen du, eta nazionalismoak inguruko nazioen eskubideak zapuztu ditu.

Ekialdeko filosofia mistikoaren ekarpenak Europaren onerako izan litezkeelakoan, Greziako mitologiatik hartutako azalpenak ere



erabiltzen ditu historia arrazoitzeko. Gerora F. Krutwigek iturri nagusia Greziakoa izango du eta, Ekialde urrunekoak bazterrera utziko ditu ez dagokigun tradizio batekotzat jota.

Balio postmaterialistak defendatzen ditu: Mendebaldeak bizi zuen egoera latza interpretatzeko budismoak eskaintzen dizkio erremintak: Jainkoaren baitakoak gara eta Mâyâren oihalak engainatu egiten gaitu, fitskerietan galduta erratu egiten baikara maiz.

Analogia eta ironia biak ditugu idazle honen baitan. Analogia agertzen zaigu, Euskal Herriko historia hurbila Olinpoko jainkoen irudira taxutzen duenean. Etorkizunean hel daitezkeen hobekuntzak ere irispidean ikusten ditu, dela mundu baketsua gizartearen alorrean, dela kulturarako egokia den hizkuntza euskararen alorrean. Ironia dugu, aldiz, ezagutza ezinezkoa dela dioenean.

## Jon Mirande

| Ezaugarriak/Idazlea, datak eta ezizena(k) | Ikasketa-maila | Literaturaren ikuspegia | Argitaratzeko zerabiltzan aldizkariak | Hizkuntza joerak | Joera politikoa | Testuingurua | Idazkien hizkuntza: | Noiz hasten publikatzen? Lehenkiak? Errekonozimendua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jon Mirande (1925-1972) -Chaho, Jon** | Batxilergoa Parisen. | Poesia heinearra, E.A. Poe, Ch. Baudelaire. Ideia paganozale, nazi, antijudu, antikristau eta askatasun sexualen aldekoak. | *Herria*, *Euzko Gogoa*, *Irrintzi*, *Egan*, *Igela*, *Elgar*, *Enbata*, Pariseko *Euzko Deya*. | Lapurtera klasikoaren aldekoa tradizio literarioagatik, nahiz eta gipuzkera osotua erabili. | Faszista. F. Nietzscheren, O. Spenglerren, A. Rosenberg ideologo naziaren jarraitzailea. | Nazi bretoiak lagun. A. Ibinagabeitia, F. Krutwig, Tx. Peillen, J. Zaitegi, K. Mitxelena, G. Aresti, J. Etxaide. | 8 euskaraz; 1 gaztelaniaz. | *Gernikan* hasi zen. 1962an proposatu zioten Euskaltzaindiara sartzea, uko egin bazuen ere. |

*15. taula. J. Mirande idazlearen datu eta ezaugarriak*



### J. Miranderen lanak[111]

Autore honek kritikaren munduan sortarazi dituen lanen kopurua handia da, zalantzarik gabe. Haatik, J. Miranderen ibilbidea eta obra oraindik ere espero ez bezalako harrobi emankorra dira ikertzailearentzat, egiten zuen hautu politiko-kultural faxistak nahi den besteko arbuioa merezi arren. Bere ikuspegi politikoa beherago ikusmiratuko dugu.

Literaturaren historian berrikuntzak ekarri zituen zalantzarik gabe. Europako paganismoak eta sorginak goraltxatzeko duen jokabidea, adibidez, zeharo modernoa du, bai baitu tradizio zaharberrituarekin fede kristau tradizionala ukatzen. XX. mendearen bigarren erdian euskal literatura biziberrituko zen, eta J. Miranderen ahotsak zer esana izan zuen betiere muturreko ikuspegi batetik.

Aldizkariko lanak ditu: hiru olerki; ipuin bat; hiru saio (bi politiko eta hirugarrena antropologikoa) eta bi itzulpen (F. Nietzscheren bata eta bestea M. Legasserena). Azken itzulpen hau sinatzeko Jon Chaho izengoitia erabili zuen.

#### "Ametsetarik" (1951)

Olerki narratiboa da. Narratzailea lotan ametsetan zegoen, emakume batek musu batez iratzarri arte.

Ametsaren mundua babesa da askotan literaturgile honen lanetan. Beste batzuetan amesgaiztoa ere izan daiteke (adibidez, gero iruzkinduko dugun "Ametsa" (1952) ipuinean). Hemen, aldiz, haragizko errealitatetik ihes egiteko du ametsa, nortasuna eta indibidualizazioa ahazteko parada: denarekin batasuna lortzeko modua. Zakur ametsa baino ez azken finean, alboan duen emakumeak esnatu egiten baitu musu batez:

"Nihaur ninduzun berriz ere...
Zertako, ai, iatzarri niz!!"[112]

Analogiaren bidez ematen zaigu aditzera bizitzaren ikuspegia. Ironikoki, izan ere; haragiaren gozamenak ezin baitu amets bidee-

tan ibiltzeak beste balio, denik eta gozoena izanik ere. Ametsa askatzailea da.

Aldizkari honetan gutxitan bezalako nitasunaren adierazpen betea dugu, erromantizismotik hona erabakigarria izan den sentimendu eta pasioen adierazpena.

Olerkiaren durundia ez da silabikoa, baizik eta erromantiko alemaniarrek eta ingelesek ohi zuten erritmikoa. Azken hauek zegokien literatur tradizio herrikoitik jaso zuten eredua, eta baztertu egin zituzten tradizio greko-latindar erromantzetik zetorkigun neurkera silabikoa. Ulertu behar da analogia dagoela esangura eta hizkuntzaren fonemen artean. J. Mirandek gogotik irakurtzen zuen literatura ingeles zaharra.

Azter dezagun lehen ahapaldia bide honetatik:

| | |
|---|---|
| rd rd | "Nihau gaierdiz nintzen barda |
| otz otz ian in | Bihotz hotz**ian** elhur-m**in** |
| ts tan tz tzan | Amets-bide**tan** galtzen nin**tzan** |
| in in | Ezpa´zinen, maitea, jin |

Olerki honek ahapaldi guztietan ditu lerro bakoitzeko bi barneko hoskidetasun gutxienez. Lerro guztiek dute kolpe kopuru bera: lau kolpe, hitz bakoitzeko kolpe bat. Leherkariak eta sudurkariak nagusitzen dira. Egia da poemako hiru ahapaldietan bigarren lerroak laugarrenarekin errimatzen duela, baina aipatu dugun durundi erritmikoa nagusitu egiten da beste konposizio batzuetan ere ("Neskutsak" poeman, adibidez[113]).

**"Neskutsak" (1951)**

Poeta begira dagoela hamabost urteko ahizpa bi elkarren besoetara erori dira dantzan egin ostean. Hau ere, amets moduko ikuskizuna da.

Durundia erritmoaren bidez egiten da eta silaba kopuru bera (zortzi) erabiltzen da lerro guztietan; bukaerako hoskidetasunik ez dago.

Gai horri buruz bi ohar egingo ditugu. Lehenik, literatura mota "arin" honen funtzioaz idazleak zer ziotsen lagunei jakingo dugu.



Eta, bigarren, poemari darion melankolia azaltzeko modu bat agertuko dugu; olerkariak goibeltasunaren kontzientzia du, ikusi bestela erabiltzen duen esaera: "Suge-olerki sa**min** bat". Konstante bat da aurreko poeman ere topa daitekeena: "Bihotz hotzian elur-**min**/Amets-bidetan galtzen nintzan".

Beste aldera, J. Mirandek bere burua euskal kausaren aitzindaritzat zeukan; solidarioa zen, nahiz eta nekez jasaten zuen jarraitzailerik eta oihartzunik ez izana, bizi zelarik. Poesiari, ordea, eginkizun bihotz-altxagarriagoa opa zion:

> "oroz lehen nihauren eta gogaide bakhan batzuen atseginerako idatzi ditut ene poemak -hots- "for the happy few". Aithor dut poeta on batek, den pantheista ala papista, ez dakhárkeola herriari pelotari on batek baino onura gehiagorik. Hain zuzen ere, ene neúrthitzak ez ditut onurarako eginak, solhaserako baino; zilhegi baitzaiku noizik behin io-muga gurenak aldebat utzita solhasik nolaerebait bilhatzea"[114]

*Gernika*ko idazlanetan badira era honetako jostailuak, esana datorren bezala.

Eta, bigarren oharrarekin malenkoniaren portura heldu gara; irakur ezazu "Neskutsak"-etik ateratako azken ahapaldia:

"Errimiñez, ezin-miñez,
Erdiratzen zait biotza
Egunetik egunera
Gau luzetik gau luzera"[115]

Tx. Peillenen esanetan, bazuen ahapaldi horren paratzaileak langelan A. Durerorren "Melancholia" izeneko pintura. Idazlearen estiloari darion sentipen honetaz hona zer zioen Aristotelesek:

> "Aussi le mélancholique est-il toujours projeté en avant a la recherche du plaisir que n´est qu´une façon de calmer sa douleur, née de la masure de la bile noire. Il est sans cesse poussé a la distraction, ce qui le conduit dans l´urgence de trouver la paix du corps, à n´être pas très

escrupuleux sut le choix de son plaisir et l´incite au vice. Par l´effet de la bile qui le mord, le mélancholique ne tolère pas la sobriété terne de la vie. Il est l´homme du Divertissement. Pour la même raison il est un être de violence et de contraste en proie au changement incessant; il est insaisissable"[116]

J. Miranderen fantasia sexual eta alkoholzaletasun literarioak marko horretan koka litezke? Irudimen sexual askotarikoa bazuen: itsasneskak, neskutsak, emagalduak, kanpaia jotzea, pederastia... Entretenigarri zituen zerok ere: amets erotiko eta tragikoak, mozkorra, bidaiak, guda...

**"Mendi gallurretatik" (1952)**

F. Nietscheren "Aus hohen Bergen" poemaren itzulpena da. Protagonista, berriz, Zarathustra. Lagun zaharrak gonbidatzen ditu, eta mahaia paratzen die, baina ez zaizkio inguratzen. Izan ere, haiek ezin biziraun lezakete anfitrioia bezalako *ehiztari*en goimendi haietan. Adiskidetasuna iragankorra da. Beraz, datozkeen adiskide berriei abegi egin beharrean dago.

"Aldakor dena baino ez dago nire kide"[117]

Etengabeko aldaketa da gizarte aurreratuen leloa, esan dugun bezala.

**"Ametsa" (1952)**

Faxismo soziologikoaren adierazpide argia iruditzen zaigu ipuin hau. Gizarte liberal demokratikoen makaltasunez faxismo horrek egiten zuen diagnosia dugu.

Pierre protagonista langile apala da, eta konbentzioei jarraituta andrea hartu du berotasun handirik gabe. Irakasleek esan dioten bezala langile zintzoa da, *bidezkoa* denez; ezkondu ere langile-maila apaleko andrearekin egiten da, *bidezkoa* denez. Begien aitzinean dauka protagonistak inolako epikotasunik eta distirarik gabeko etorkizuna. Ingurune sozialak -gurasoek...– ere jokabidea aintzatesten dio.



